



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko uztailaren 31

82. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planari buruzko Batzorde Bereziaren irizpeneko konklusioak. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planari buruzko Batzorde Bereziaren irizpenaren eztabaidan bazterturiko boto partikularrak. Osoko Bilkurak bazter utzia (28. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planari buruzko Batzorde Bereziaren irizpeneko konklusioak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 67.2. artikularekin bat, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren 2020ko ekainaren 25eko Erabakia, zeinaren bidez onesten baitira Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planari buruzko Batzorde Bereziaren irizpeneko konklusioak.

Iruñean, 2020ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planari buruzko Batzorde Bereziaren irizpeneko konklusioak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua.

1.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Zerga Ogasunak konpromisoa har dezan beharrezkoak diren baliabide gehigarri guztiekin lehenesteko tributu bakoitzaren arauditik eratorritako itzultze-prozeduren izapidetzea, sarrera bidegabeen itzulketa-eskarien prozedurena, eta organo ekonomiko-administratibo eta/edo judizialek zerga-kontzeptu ezberdinengatik Tributu Administrazioaren aurrean zergadunaren alde emandako ebazpenen exekuzioena. Arazo hori bereziki nabarmena da BEZaren kasuan.

2.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Estatuko Gobernuarekiko elkarrizketari berrekin diezaion, Hitzarmenaren negoziatioaren esparruan trafiko arloko eskumenen eskualdatzea, jada hasita dagoena, arintzeko eskatze aldera eta beste eskumen batzuk ere –espetxe-osasungin-

tza, I+G+b eta ikasteko bekak eta laguntzak– aintzat hartzeko.

3.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

a) Iruzur fiskalaren aurkako neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua igor dezan Legebiltzar honetara. Proiektuan, "Nafarroan 2006tik 2016ra bitarteko iruzur fiskalaren diagnostikoa eta ezkutuko ekonomiaren balioespina egiten duen azterlana" izenekoan jasotako gomendioei jarraikiz, Iruzur fiskalaren Behatokia eratzea jasoko da, eta horrela beteko da Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 7an aho batez onetsitako mozioa.

b) Areagotu dezan Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoan berariaz iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokan jarduten duten langileen kopurua, Europako batez besteko enplegatu kopurura iristeko; izan ere, Nafarroan Ogasuneko ia bost enplegatu besterik ez dago 10.000 biztanleko, Frantzia 17 edo Alemaniaren 14 dauden bitartean.

4.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki bat har dezan, Hitzarmen Ekonomikoak ematen dizkigun aukerak baliatuta, Espainiako Gobernuarekin zorpetze-politika berri bat negoziatzeko, gure errealitatera eta beharizan ekonomikoetara egokitua eta gizarte gisa ditugun erronkei begirakoa. Hori dela eta, premiazkia da Estatuarekin bide-orri fiskal eta finantzario propioa adostea, beharrezkoak izanen ditugun politika publikoak finantzatu ahal izateko. Bide-orri horrek zorpetzerako eta defizit publikorako muga berriak ezarri beharko du eta gastu-araia gainditu beharko du, bai eta udal mailan ere, faktore horiek izan baitira orain arte galarazi dutenak azken urteotan metaturiko gastu oroko-

rretarako gerakina eta pasa den ekitaldiko superabit osoa inbertitu ahal izatea.

5.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Azter dezan Nafarroako Foru Komunitatean ondare handientzako edo aberastasunaren gaineko zerga bat onesteko aukera eta hura ezartzeko beharrezkoak diren legegintza-neurriak onets ditzan.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jaso ditzan.

6.a Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa eta premiazkoa dela Espainiako Gobernuak eta Gorte Nagusiek ekin diezaioten 2011n onetsitako Konstituzioaren 135. artikulua erreforma indargabetzeari, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da indargabetze hori babestu eta eska dezan.

Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa eta premiazkoa dela Espainiako Gobernuak eta Gorte Nagusiek ekin diezaioten Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetzeari, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da indargabetze hori babestu eta eska dezan.

7.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresentzako laguntza, dirulaguntza eta onura fiskalei buruzko araudia alda dezan eta horiek emateko baldintza gisa ekoizpena eta enplegua ez deslokalizatzeko berme zorrotz eta eraginkorrak ezar ditzan.

8.a Nafarroako Parlamentuak uste du ezinbestekoa dela Europar Batasunak eta bere estatu kideek enpresen irabazien eta kapital-errenten tributaziorako esparru fiskal komun bat adostu eta onestea, eta Nafarroako eta Espainiako gobernua premiatzen ditu EBko erakundearen aurrean harmonizazio hori babestu eta exigitu dezaten.

9.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren aurkako borroka areagotu eta xede horretara bideratutako giza baliabideak eta baliabide materialak handitu ditzan, foru erkidegoaren diru-kutxarako diru-bilketa hobetzeko.

- 2020an zehar aurkez dezan tributuen arloko foru-araudiko zuzeneko zergen onura fiskalen eraginkortasuna eta efizientzia aztertze txostena, Sozietateen gaineko Zergaren onura fiskalen azterketari lehentasuna emanez.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua

10.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat sor dezan, zein baliabide eta irizpide objektiboak jasoko baitira Foru Administrazioan –Justizia Administrazioa barne– telelana modu ordenatu eta sistematizatu sartzeko, hura sendotzeko bidean.

Telelana kudeaketa publikoan txertatutako tresna bihurtzeko neurriak ezar ditzan, erabilitako jokabideak eta baliabideak sendotuz eta hobetuz. Eta plantilla organikoetako lanpostuen definizioan telelanaren alternatibak kontuan har ditzan, eta telelana banatzeko inguruabarrak eta ehunekoak ezartzea, antolamendu-irizpide objektiboan eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren irizpidearen arabera.

Horretarako, beharrezkoa da alde aurreko diagnostiko bat izatea, departamentuka xehatutako azterketa bat, egungo egoera ezagutzeko eta Foru Administrazioan telelana sendotzearen bidean aurrera egiteko beharrezkoak diren behar teknikoak ezagutzeko.

11.a Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako neurri hauek sar ditzan Nafarroa Suspertu Planean:

a). Estatuarekin negoziatzea, Estatuko aurrekontu-legeriatik “birjarpen-tasa” delakoa ezabatzeko, zeinak ezarri zenetik ezegonkortasun eta behin-behinekotasun handia eragin baitu zerbitzu publikoetan.

b). 2021etik 2023ra bitarteko aldirian, enplegu publikoa sendotzeko beharrezkoak diren lan-eskaintza publikoak garatzea, egiturazko lanpostuetan behin-behinekotasun tasa % 8tik behera jaisteko, batez ere hezkuntzaren eta osasunaren arloetan.

c). Foru Administrazioaren erreforma demokratikoa sustatzea, profesionaltasun-, gaitasun- eta eraginkortasun-printzipioei jarraituz funtziona dezan, herritarrei zabalik egon dadin eta funtzionarioek jardun publikoan parte har dezaten.

Horretarako, Nafarroako Gobernua premiatzen da, legegintzaldi honetan onesteko denbora nahikoarekin, Nafarroako Foru eta Toki Administrazioan ordezkaritza duten sindikatuarekin partaidea eta negoziazio-prozesu bat egin ondoren, Parlamentuari aurkez diezaion Funtzio Publikoaren Estatutu berri baten foru lege proiektu bat, irizpide horietara egokitua, Nafarroako enplegu publikoaren printzipio informatzaileak eta haren alderdi guztiak arautuko dituena: eskubideak eta betebeharrak, erantzukizuna, lanaldia (telelana barne),

plangintza, sailkapena, sarbidea (eskakizunak, eskuratzea eta galtzea, hautaketa-prozesuak eta -sistemak, hautaketa-organoak), prestakuntza, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua, langile finko eta bitarteko guztien karrera profesionala (modalitateak, bertikala eta horizontala), administrazio-egoerak, ordainsari-sistema, diziplina-araubidea, ordezkari-organok eta negoziatzaio kolektiboak...

d). Nafarroako Foru Administrazioaren menpeko larrialdi-tako zerbitzu publikoak indartzea eta "pandemia bidezko arrisku-egoerarako Babes Zibileko Plan Berezia" egitea, lehendik dauden babes zibileko plan bereziek dutenaren antzeko eskemarekin. Plangintza horrek honako hauek jaso beharko ditu: plana bera aktibatzea, haren zuzendaritza, aholkularitza-organo edo -batzorde posible propioak edo diziplinartekoak (osasuna, polizia, gizarte zerbitzuak, boluntariotza, beste administrazio batzuk...), baliabideen katalogoa, funtzio eta misio posibleak, baliabideen eta langileen aktibazioa, komunikazio-sistemak, eta abar...

12.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du mahai baterako dei egin dezan, zeinean parte hartuko baitute Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, Parlamentuko ordezkari-tza politikokoak, ordezkari-tza sindikalak, mugimendu feministaren ordezkari-tza pluralak, emakumeen elkarteek, zaintza-sareek eta prebentzio-ekintzako zerbitzuek, emakumeen zainketa-lanen eta pairatzen dituzten indarkerien eta lan-prekarietatearen gaiari erantzunen dion jarduera-plan bat egiteko. Plan horrek epe laburrerako eta luzerako neurriak jaso behar ditu, eta neurri hauek inplementatu behar ditu, besteak beste:

a). Gizarte- eta osasun-zerbitzuek (auzo-unitateak, oinarritzko gizarte-zerbitzuak eta osasun-zentroak) indarkeria matxistako kasuak detektatu eta koordinatu ahal izateko protokolo bat egitea. Protokolo horretan osasun-arloko eta gizarte-arloko profesionalen prestakuntza jasoko da.

b). Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egindako azterketa, konfinamenduak zainketen banaketan eta emakumeekiko laneko gainkargan izan duen eragina aztertzeke.

c). Familia-topaketen irekiera eta zerbitzuaren xedea une oro bermatzea.

d). Sektore feminizatuetako lan-baldintzak hobetzeko eta soldata-arrakala ezabatzekeo neurriak.

e). Familietan, administrazioaren barruan eta kanpoan, zainketak berrantolatzekeo neurriak (atseden-guneak sortzea, pertsonak kontratatzekeo

laguntzak, lantoki guztietan ordutegia malgutzekeo neurriak...).

f). Etxeko langileak erregularizatzea, arlo horretako diskriminazioarekin amaitzekeo, eta neurri zehatzak ezartzea pertsona horien kontratazioak kontrolatzekeo eta bermatzekeo, eta sektoreko hitzarmen bat onestea, lan-baldintza duinak hobetu ahal izatekeo.

13.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroa Susper-tu planean honako neurri hauek sar ditzan:

1. Hezkuntza ez-formaleko espazioak, prebentzio komunitarioko zerbitzuak eta adingabeak zaintzekeo guneak ekainean, uztailan eta abuztuan irekitzekeo ezarritako osasun-irizpideak (ratioak, espazio fisikoak...) premiaz ezartzea; horien artean, beharrezkoa izanez gero, ikastetxeetan eta haur-eskoletan espazioak erabiltzea aurreikusitako ahal izanen da.

2. Premiaz deitzekeo departamentuen arteko batzordea (gizarte-eskubideak, berdintasuna, osasuna, hezkuntza), tokiko erakundeekin, arreta komunitarioko zerbitzuekin, zaintza-sareekin eta boluntarioekin batera, uda honetan gazteei eta adingabeei zuzendutako espazioen –komunitarioak, jolaserakoak eta hezkuntza ez-formalarenak– plangintza bat egitekeo, ikuspegi komunitario batetik koordinatuta.

3. 12 urtetik beherakoak, adinekoak edo/eta mendetasun- edo desgaitasun-egoeran daudenak zaintzekeo laguntza ekonomikoko programa bat sortzea, errentaren arabera, baldin eta egiaztatzen bada ezin dela beste bateratze-neurririk hartu. Nafarroako Gobernuak ahalik eta lasterren arautuko ditu eskaerak egitekeo eta ebatztekeo baldintzak, errenta-tarteak, zenbatekoa eta prozedura.

4. Toki entitateentzako eta gizarte-entitateentzako aurrekontu-partida bat onartzea, gazteei eta hurrei zuzendutako programa komunitarioak, hezkuntza ez-formala eta hiri-kanpalekuak ezartzen laguntzekeo.

14.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

- Giza garapen jasangarrirako ezinbestekoa den balioen aldatzea bultzatu eta sendotu dezen, maskulinitasun hegemonikoak, androzentrismoak, sexismoak eta matxismoak zeharkatu gabeko balioak ezartzekeo, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideekiko errespetua eta beren herritartasunaren sustapena gartu eta txertatu ahal izatekeo printzipio filosofiko, etiko eta politikokoak jasoko dituztenak.

- Nafarroak behar duen eredia diseina dezan, indarkeria mota guztien biktima diren emakumeak artatzeko, berreskuratzeko eta gizarteratzeko baliabide gisa. Eredu horretan, talde integralak bilduko dira, indarkeria desberdinen espezialitateei arreta emanen dietenak, beren errekupeazio-prozesuan, ahalduntzean eta erabateko autonomia bilatzean emakumeei laguntzeko. (Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea honako hauek jasozten ditu haren agerkari gisa: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, sexu-indarkeriaren mota guztiak, feminizidioa, emakumeen eta nesken trafikoa, sexu-esplotazioa, hitzartuta edo behartuta gazteegi ezkonaraztea, edota emakumezkoen genitalen mutilazioa.

- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera, sentsibilizazio-, kontzientziazio- eta alerta-kanpainak ezar ditzan, udal bakoitzak dituen bitartekoak erabiliz, hala nola tokiko irratia, udal-buletina, udal-bandoak, eta abar, eta horren partaide egitea saltokien sarea, jatetxeak, liburu-dendak eta indarkeriaren biktima den emakume bati arreta eman diezaiokkeen beste edozein establezimendu (adibidez: Maskara 19).

- Proposamen guztiek genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jasoko dituzte”.

15.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazio- eta koordinazio-batzordeen bidez negoziata dezan birjarpen-tasa ezaba dadila, Nafarroako Foru Administrazioaren bitartekotasun- eta behin-behinekotasun-maila jasanezinak murrizteko.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jaso ditzan.

16.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- “Nafarroa barneko Erasmusa” ekimenaren lehen proba pilotu bat bultzata dezan, Unibertsitate, Berrikuntza eta Transformazio Digitaleko Departamentuaren, Lurralde Kohesioko Departamentuaren, Landa Garapeneko Departamentuaren, Hezkuntzako Departamentuaren eta Nafarroako Gazteriaren Institutuaren artean koordinatua, unibertsitateko eta lanbide heziketako ikasle gazteek beren prestakuntza osa dezaten despopulazioak bereziki mehatxatutako edo astindutako udalerrri eta eskualdeetan.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jaso ditzan.

17.a 1. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Estatuko Gobernuak indargabe utz dezan lan eskaintza publikoak deitzeko ahalmena mugatzen duen Estatuko oinarriko araudia, eta Nafarroako Gobernua premia-tzen du indargabetze hori babestu eta eska dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du dei egin eta garatu ditzan bikaintasuneko zerbitzu publikoak eskaintze aldera Nafarroako administrazio publikoek behar adina langile funtzionario izateko beharrezkoak diren lan eskaintza publiko guztiak eta hautaketa-prozedura guztiak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du handitu eta doitu ditzan Nafarroako administrazio publikoetako plantilla organikoak, honako hauei dagokienez:

- Ematen dituzten zerbitzuei eta herritarren beharrezko erantzuteko behar diren lanpostuen kopurua.

- Herritarrei kalitatezko erantzun espezializatu emateko egokienak diren profil profesionali dagokienez.

18.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Entitate berri bat sustata dezan, Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztientzat baliagarria izanen dena, larrialdien arloko premiei erantzun arin eta integrala emateko, esku-hartze operatiboren ikuspegitik eta larrialdi handi eta txikien prebentzioari heltzeko aukeraren ikuspegitik.

2. Autobabeserako plan berezi baten garapena eta sustapena bultzata dezan, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean, administrazio horiek dituzten neurriak eta giza baliabideak eta baliabide materialak ezar daitezzen, hautemandako arriskuak kontrolatzeko eta larrialdi-egoerei aurre egiteko, hala nola COVID-19ak eragindakoa, eta Larrialdi Zerbitzuen esku-hartzea errazteko.

19.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza ez-formaleko espazioak, prebentzio komunitarioko zerbitzuak eta adingabeak zaintzeko guneak ekainean, uztailan eta abuztuan irekitzeko ezarritako osasun-irizpideak (ratioak, espazio fisikoak...) premiaz ezar ditzan; horien artean, beharrezkoa izanez

gero, ikastetxeetan eta haur-eskoletan espazioak erabiltzea aurreikusi ahal izanen da.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan departamentuen arteko batzordea (hartan Lehendakariak Departamentua, Garapen Ekonomikorako Departamentua, Eskubide Sozialetako Departamentua, Lurralde Kohesioko Departamentua eta Hezkuntza Departamentua, toki entitateekin, arreta komunitarioko zerbitzuarekin, zaintza-sareekin eta boluntarioekin batera), uda honetan gazteei eta adingabeei zuzendutako espazioen —komunitarioak, jolaserakoak eta hezkuntza ez-formalarenak— plangintza bat egiteko, ikuspegi komunitario batetik koordinatuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan toki entitateentzako eta gizarte-entitateentzako aurrekontu-partida bat sor dezan, gazteei eta haurrei zuzendutako programa komunitarioak, hezkuntza ez-formala eta hiri-kanpalekuak ezartzen laguntzeko.

20.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lan ez-presentzialaren erregulazioa susta dezan, eta, halaber, enpresa pribatuan sustapen-neurriak har ditzan “normaltasun berriaren” fasean, familia nafarren kontziliazioa eta erantzunkidetasuna errazteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzuaren jardueren berrikustea, aurreikusi ezin diren eta konplexuak diren egoeren aurrean, hala nola COVID-19aren pandemiarekin gertatutakoa”.

21.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan Nafarroako Gazteriaren Institutuak parte har dezala gazteriari eragiten dioten Nafarroa Suspertu planeko politika guztien zeharkakotasunean; hala nola, enpleguaren prekarietatea, kalitatezko hezkuntza, aisialdi osasungarria eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan hezkuntza ez-formala babestu eta bultzatzea dezan, Nafarroako Gazteen-tzako Jardueren Eskolaren (NGJE) eskaintza oso baten bidez, bai eta prestakuntzarako laguntza-programa batzuen bidez ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan gazteen ekintzailetzarako trebetasunak, gaitasunak eta gaitasunak garatu ditzan, gizarte-ekonomia sustatuz.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua.

22.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan 2020ko ekitaldia amaitu aurretik abian jar dezan etxebizitza-parke propioa birgaitzeko plan bat, barne hartuko dituen, lehenik eta behin, gaur egun hutsik dauden eta etxebizitza babesturako eskaera egiaztatuta daukaten udalerrietan kokatuta dauden etxebizitza guztiak, eta, bigarrenik, gaur egun errentamendurako erabiliak diren eraikinak, beren antzintasunagatik era honetako jarduketara bat beharrezkoa dutenak.

23.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua premiaz dei dezan beharrezkoak diren araudi-aldaketak egitera, halatan 65 urte baino gehiagoko pertsonen, batez ere bakarrik edo beren ezkontidearekin bizi direnen, sarbidea izan dezaten alokairu babesturako eskaintza, baita jadanik etxebizitza baten jabe direnean ere, baldin eta etxebizitza hori Nasuvinsoa sozietate publikoak kudeaturiko Alokairu Poltsaren programarako lagatzen bada.

24.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan Nafarroa Suspertu Planean neurriak jaso daitezkeen hark urgentziaz eta erabakitasunez esku hartzeko etxebizitza hutsen eroldaren prestaketan, zeina aipatuta baitator Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgeteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legearen azken xedapenetatik lehenengoan, jotzen baita oinarritzeko lanabesa dela etxebizitza-multzoaren erabilera soziala aktibatze eta alokairu-parke publikoa handiagotzeko.

25.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz dei dezan Nafarroa Suspertu Planean hirigintza-arloko gogoeta bat bil dadin, fruitutzat ekarriko duena gutxienez honako afera hauei erantzuna emanen dieten neurri eraginkorrak hartzea eta baliabideak abiaraztea:

- Elkarbizitza-eredu berriak.
- Bizigarritasun-parametroen birdefinizioa.
- Erabilera amankomuneko guneen taxuketa aldatzea.
- Zaharberritzea lehenestea berritik eraikitzearen aldean; horretarako, udal-plangintzak eta abar berrikustea.
- Erabilera sustatzea, erabilera berriak abiaraztea eta etxabeei buruzko arauak aldatzea.

- Toki entitateekin lankidetzan aritzea hitzarmenak sinatzeko eta etxebizitza, eraikin eta guneak zaharberritu eta egokitzeko ekintzak aurrera eramateko.

- Nafarroa Susperitu Planean deskribatzen eta bultzatzen diren enpresa-ekimen berriak kokatzeko industrialdeak abiaraztea, eskuragarritasunez, Nafarroako lurralde osoan dibertsifikatuta eta ekimen horietarako behar diren zertzeladekin.

26.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Formulak ezar ditzan, Administrazioari modua emanen diotenak etxebizitza berehala erosteko, orain abian diren eraikitze-sustapenez landa, dela finantza-entitateekiko eta inbertsio-funtsekiko lagapen-hitzarmenen, harremanaren eta negoziazioaren bidez, dela helburu hori lortzeko baliagarritzat jotzen diren bestelako bideak jorratuz.

- Konpromisoa har dezan, hurrengo aurrekontuetan igotzekoa Administrazioak etxebizitza babestua lehenatasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea egikaritu ahal izatera bideraturiko partidaren zenbatekoa.

- Egoki diren legegintza-neurriak onets ditzan, etxebizitza babestuaren kalifikazioa epe mugagarberakoa izan dadin lortzekoak.

- Egoki diren legegintza-neurriak onets ditzan, berrmatze aldera ezen finantza-entitateak, inbertsio-funtsak eta edukitzaile handiak behartuta egonen direla ordezeko bizileku bat eskaintzera utzarazpena egikaritu aurretik.

- Berehalakoan labor ditzan merkatu askeko alokairurako laguntzak eskuratzeari dagokionez (zehazki, DAVID-Etxebizitza Eskuratzeko Kenkarien Programakoak) eskatzen diren etxebizitza babestuaren eroldako inskribatze-epeak.

- Behar diren legegintza-neurriak onets ditzan, gehieneko alokairu-prezioen erreferentzia-indize bat berehalakoan ezartzeko.

- Etxebizitza Departamentua bitartekoz horni dezan, berehalakoan abiarazi ahal dezan etxebizitza hutsen Erregistroa, eta 24/2013 Foru Legean aurreikusitako gainerako hertsapen-tresnak.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jaso ditzan.

27.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Foru Komunitateko udal nagusiekin negoziatuz dezan udal orube hutsak kudeatzeko eredu bat,

Nasuvinsak modua izan dezan haietan ahalik eta kostu txikienaz eraikitze alokairu babestuko etxebizitza publikoak. Gobernuari proposatzen zaio azalera-eskubidea erabiltzea, bitarteko arin eta ekonomiko gisa, eraikitzeari epe laburrean ekiteko modua ematen duena, udal ondarearen galerarik gabe, eta hitzarmen horrek dirauen bitartean udalarentzako diru-sarrerara konstanteak ahalbidetzen dituen.

28.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Etxebizitza publikoaren parkea handitu dezan, alokairu sozialeko zorroaren esku uzteko.

2. Eskura dituen neurri guztiak balia ditzan, banku-entitateek alokairu sozialeko zorrorako eskain ditzaten Nafarroan jabetzan dituzten etxebizitzetatik ahalik eta gehienak.

3. Alokairuaren Zorroa sustatzeko neurriak hartzen jarrai dezan, halako moduz non aurrerapausoak emanen diren alokairuko etxebizitza sozialaren gizarte-eskaerari erantzuteko, eta iraunkortasun-parametroak hobetuko diren, etxebizitza hutsak balioan jartzeagatik.

4. Berehalako neurriak abian jar ditzan Nafarroan batzuetan gertatzen diren jende-pilaketa edo erdi-pilaketa egoerei aurre egiteko, bereziki zuzenduak seme-alabak beren kargura dituzten eta beste familia-unitate batzuekin partekatutako etxebizitzetako geletan bizi diren familia gurasobakarrei etxebizitza duina ziurtatzera.

5. Alokairu-prezioak arautuko dituen lege bat susta dezan, halako moduz non, kokalekuaren arabera, metro karratu bakoitzeko gehieneko prezio bat ezarriko baitu.

29.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Bultzada eman diezaion, Lehendakarien Konferentzian, sei hilabete gehiagoz luzatzeari martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuko 1. artikuluan jasotzen den etetea, ordezeko bizilekurik gabeko familia zaurgarriak etxegabetzeko eta haien edukitza kentzeko prozedurarena.

30.a Nafarroako Gobernua premiatzen da araugintzako tresna berezi bat abiaraz dezan, dela egungo etxebizitza-leggedian txertatuz, dela bestelako formula juridiko edo programa baten bidez, malgutu eta erraztu egingen duena landa-eremuan dauden tankera tradizionalako eraikinen zaharberritzea.

31.a Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan lankidetasunezko etxebizitzaren ereduak ezartzearen aukerari eta bideragarri-

tasunari buruz, eta haien kalitatea eta bizigarritasuna ziurtatzen duten formulak jaso ditzan araudian.

Lurralde Kohesiorako Departamentua

32.a Azaldutako guztiagatik eta kontuan hartuta atzerapenarekin ari direla gauzatzen 2017tik 2020ra bitarteko Toki Inbertsioen Planari egindako ekarpenen barruan onetsitako inbertsioak –Toki entitateek Nafarroako Tributuetan duten Partehartzeen Funtsaren kargura egin beharrekoak–, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Toki Inbertsioen egungo Planaren zuzkidura areagotu dezan ekitaldi honetan, bai eta funts horren kargura beren beharrezan araberak udalek eta kontzejuek egitea erabakitzen dituzten libreki zehaztu beharreko inbertsioena ere.

33.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Ubidearen 1. Fasearen handitzea bultzatu eta bukatu dezan. Horri, Nafarroako Ubidearen 1. Fasearen eraikuntza gehitu behar diogu. Hortaz, edateko, industria-rako nahiz ureztatzeko uraren kontsumo-beharrezanak bermatu behar dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Prestazio Handiko Trenaren garapena bultzatu eta indartu dezan, gure erkidegoaren garapenerako eta etorkizunerako funtsezko azpiegitura den aldetik.

34.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

Despopulazioa leuntzeko politikak garatzean aintzat har ditzan berriki Nafarroako Parlamentuan despopulazioari buruz egin ziren jardunaldietako lantaldeetan eginiko proposamenak.

35.a Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Ekonomia Suspertzeko Planerako Nafarroako Udak eta Kontzejuen Federazioak egindako proposamenak; hartara, Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

a). Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planean jaso beharreko printzipioak bere egin ditzan; honako hauek, hain zuzen ere: erakundeen arteko erabateko koordinazioa; osagarritasuna, herrien kohesio ekonomiko eta soziala sustatzea; elkartasuna; pertsona eta talde ahulenen atentzia lehenestea; herritarren eta gizarte eragileen eta erakundeen arteko mintzakidetzak bermatzea, eta tokiko baliabide publikoen kudeaketa arrazoizkoa.

b). Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planean jaso ditzan toki entitateek beren ahalmen guztiak eraginkortasunez erakusteko beharrezkoak diren neurri orokorrak; bereziki, gerakinak

baliatu ahal izateari buruzkoak. Hartara, aurrekontu egonkortasunari buruzko araudia alda dadin aldeztuko da, halako moduan non kendu eginen baitira toki entitateek sortutako baliabide ekonomikoak guztiz kudeatu ahal izatea eragozten duten eta zorpetze ahalmenaren arloan dauzkaten esku-menak murrizten dituzten traba eta muga guztiak.

c). Toki Administrazioaren jarduerak suspertzeko neurriak jaso ditzan, bai eta tokiko jarduerak ekonomikoak –bereziki, enpresa txikiak eta autonomoak– eta izaera sozialekoak suspertzekoak ere.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ekainaren 30a baino lehen foru lege proiektu bat aurkez dezan, zeinaren bidez arautuko baita Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legearen bidez onetsitako funts berezia, zeinak balioko baitu pandemiaren ondorioz toki entitateek 2020an dauzkaten aparteko gastuak, zergen bidezko nahiz bestelako diru-sarreraren galera eta jarduerak ekonomikoaren sustapena finantzatzeko.

36.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du errepide-sarearen mantentze-lanak finantzatzeko eta inbertsio berrietarako politika bat gara dezan, honako eduki hauek izanen dituena:

1. Errepide-sarearen mantentze-lanak eta bide berrietarako inbertsioak aurrekontu publikoaren bidez finantzatzea.

Salbuespen bakarra izanen da Nafarroako Gobernuak, ingurumenaren arloko arrazoiak direla medio, ibilgailu astunentzako bidesariak jartzea baloratu ahal izanen duela.

2. Nafarroako errepide-sarean eta edukiera handiko errepideetako jarduketak lehenetsiak, bereziki honako hauek:

– AP-15a eta A-15a (Soria-Tutera) lotzea, Iruñetik Madrilerako bidea itxiz.

– N-121-A Iruña-Behobia. Errepidea 2+1 errepide bihurtzeko jarduketak.

– PA-30 Iruñeko ingurabidea-iparraldeko ingurabidea ixtea.

– NA-132 Tafallako hegoaldeko saihebidia.

– Belateko eta Almandozko tunelak. Belateko eta Almandozko tunelen bikoizketa.

– N-113 errepidea. 76-77 kilometroa aldatzea, Ebro ibaiak gainezka egiten duenean uholdeak ekiditeko.

37.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure erkidegoko udalak finantzatzeko eredu berri bat bultzatuz, egun-egoa berrikusi beharra baitago. Finantzaketa eredu berriak irizpide berriak jaso beharko lituzke, lurralde kohesioa areagotzea lortzearen bidean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako toki entitateetan administrazio elektronikoa ezartzea bultzatuz, eskuragarriagoak, gardenagoak, hurbilagoak, efizienteagoak eta eragingarriagoak izan daitezkeen.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du landa eremuetako inbertsioak bultzatuz, despopulazioaren aurka borrokatzeko, zerbitzu publikoak hobetzea helburu.

38.a 1 Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du toki inbertsioen plan berri bat bultzatuz, bere helburuen artean jasoko dituen klima aldaketaren aurkako borroka eta trantsizio energetikoa eta udaletako oinarriko azpiegiturak eta konektibitatea hobetzearen aldeko apustuari eustea, lurralde kohesiorako eta orekarako osagai diren aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errepideak edo bestelako bide-azpiegiturak finantzatzeko plan berri bat bultzatuz, foru erkidegoko errepide-sarea hobetzea helburu.

Hezkuntza Departamentua.

39.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “Hezkuntza-larrialdirako Plan Ekonomiko” bat presta dezan, hasiera batean planifikatutako duena laguntza- eta babes-beharrizan handienak dituzten haurrei ikasturtearen amaieratik –ekainak 19– aurrera eman beharreko arreta.

Plan honek hainbat jarduketa jasotzen ditu, ikasmaila eta ikasleen beharren arabera antolatutako direnak, eta zaintza- eta elikadura-baldintza oinarrikoak ziurtatuko dituen “koltxo sozial” bat izateaz gain, horren beharra duten ikasleentzat hezkuntza-konpentsaziorako elementu gisa ere baliatu ahalko da.

Hona hemen “Hezkuntza-larrialdirako Plan Ekonomiko” horretan jasotzeko proposatzen ditugun neurri zehatzak:

1. Eskola-jantokiak irekitzea.

2. Oinarriko zaintza ziurtatuko duten eskola-kanpaldiak antolatzea.

3. Hezkuntza-konpentsaziorako jarduerak antolatzea eskola-atzerapena eta hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleentzat.

4. Hezkuntza premiak dituzten ikasleentzako laguntza- eta berariazko zaintza-plana udako hila-beteetan.

Neurri hauek guztiek babes ekonomiko egokia behar dute, haiei aurre egiteko beka deialdi berezi bat, datorren ikasturtean jarraipena izan lezakeena, beharrezkoa balitz.

40.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du inbertsio plan bat taxutu dezan, hezkuntza alorreko agertoki berri bat zehaztuko duena, zeinetan ikasleak segurtasun- eta osasun-berme egokiekin moldatu ahalko diren egun pairatzen dugun pandemiaren balizko birgorakaden aurreikuspena aintzat hartuta. Plan horretan aintzat hartu beharko da, halaber, gero eta beharrezkoagoa den pertsonen txertatzea gizarte birtual berri horretan; izan ere, gizarte horretan gero eta jardura gehiago egiten dira, gaur egun funtsezkotzat ditugunetatik harago.

Arlo teknologikoko inbertsio plan horrek jaso beharko luke ikasle guztiei ekipamendu teknologikoa eta sarbidea ematea, batez ere behar-tsuenentzat, on-line irakaskuntza erraztuko duten tresnak garatzea, hezkuntza-komunitate osoari (irakasleei eta familiei) horiek erabiltzeko behar den prestakuntza ematea, eta irakasgai eta maila guztietako eduki birtualak sortzea, ikasleei oinarriko gaitasunak eskuratzea ahalbidetzeko.

41.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du inbertsio plan bat taxutu dezan, hezkuntza alorreko agertoki berri bat zehaztuko duena, zeinetan ikasleak segurtasun- eta osasun-berme egokiekin moldatu ahalko diren egun pairatzen dugun pandemiaren balizko birgorakaden aurreikuspena aintzat hartuta.

Plan horren abiapuntuak izan beharko luke herri bakoitzeko eskola-egoeraren eta ikastetxe bakoitzaren berariazko inguruabarren azterketa zorrotzak, eta testuinguru bakoitzerako konponbide egokienak proposatu beharko lituzke, beste gune batzuen erabilera baztertu gabe, horietan irakaskuntza gauzatzeko beharrezkoak diren egokitzapenak kontuan hartuta, noski.

Horrenbestez, beharrezkoa da:

1. Lehenbailehen egitea ikastetxe bakoitzaren ezaugarri eta beharrezko buruzko azterketa bat, eta esku-hartze proposamenaren bidez balizko konponbideak planteatzea.

2. Inbertsio plan bat proposatzea, beharrezkoa den sekuentziazioa, esku-hartzeen lehentasuna eta horietako bakoitzaren kostua jasoko dituen, 20/21 ikasturtearen hasierarako eginak egoteko xedearekin.

42.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntzaren Aldeko Hitzarmen Sozial eta Politiko bat susta dezan, sistema egonkor bat lortze aldera, bai legearen bai araudiaren aldetik. Hitzarmen horretan lehentasuna izan beharko du krisi hau zuzenean pairatu duen hezkuntza publikoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indartze-plan bat susta dezan 2020/2021 ikasturterako, hezkuntza-sistemari ahalbidetuko diona prest egotea pandemia honen berragerpen baten aurrean, bai eta bizi dugunaren antzeko egoera batera itzultzea saihestea ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lurralde-kooperaziorako Plan bat susta dezan, bat etorriko dena Pirinioen ponentziazio edota Nafarroako eskualdeen garpenerako beste estrategia batzuetatik eratorritako politikekin. Landa eremuko eskola bultzatzeko xedearekin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzaren hitzarmen bat ezar dezan Foru Administrazioaren eta toki entitate garrantzitsuen artean, bazterketa arriskuan dauden ikasleak identifikatzeko oinarriak ezarri eta eskolatzeko-prozesua hobetzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kalitatezko goi mailako Lanbide Heziketa eta ikasketa unibertsitarioak bultzatuz, gure enpresen hurbilekoak eta sektore estrategikoetara bideratuak, eta, era berean, bizitza osoan zeharreko enplegarritasunerako eta prestakuntzarako gaitasunak susta ditzan.

43.a Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak apustu sendoa egingen du Foru Komunitateko garapen ekonomikorako gako ardatzekin lerrokatutako titulazio berriak sendotu eta ezartzeko, lanbide heziketa dualean sakonduko du eta ikaspostu kopurua handitzeko konpromisoa hartuko du, enplegarritasuna areagotzeko lehentasunezko xedeari jarraikiz. Hori guztia duela gutxi amaitu den "Enplegua eta Lanbide Heziketa" prozesuaren baitan eginiko hausnarketa eta analisiak ezarritako norabidean eta 2017-2020 aldirako Nafarroarako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoan jasotakoaren ildotik.

44.a Hezkuntza Departamentuak jarraituko du Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna betetzen eta bermatuko du 2020ko irailetik aurrera 57tik gorako irakasleei lanaldia murriztea, Itunean jasotakoarekin bat.

– Halaber, Hezkuntza Departamentuak jarraituko du Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna betetzen, eta bermatuko du 2020ko irailetik aurrera ikastetxe publikoetako zuzendaritza-eginkizunei esleitzen zaizkien orduen areagotzea.

45.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako hezkuntza-komunitatearekin adostu ditzan irailean izan ditzakegun egoera epidemiologiko desberdinen arbera hartu beharreko neurriak, eta gure errealitateari egokitutako kontingentzia plan bat presta dezan. Plan horrek honako ezaugarriak izan ditu:

– Beharrezkoak diren baliabide guztiak izanen ditu, departamentuaren aurrekontuan inongo murrizketarik egin gabe.

– Ikastetxetarako eta ikasleentzako prestakuntza ibilbide bat eta baliabide digitalen hornidura jasoko ditu.

– Ratioen jaitsiera dela eta, kontratazio-beharrian nahikoak aurreikusiko ditu.

– Hezkuntza-errefortzurako plan bat jasoko du, ikastetxe bakoitzaren errealitatean oinarritua.

– Talde txikiagoak bermatzeko espazioen egokitzapena aurreikusiko du, bai eta beste espazio osagarri batzuen erabilera ere.

– Segurtasun eta Osasun Batzordearen esparruan prebentzio-ordezkariekin adosturiko segurtasun neurri guztiak jasoko ditu.

– Testak egitea ziurtatuko da, bai eta babes-materiala ikasgeletara joan diren irakasle eta ikasle guztientzat, eta jarraipen egokia egingen da ikasturte osoan zehar.

– Araubide bereziko ikasketa eta ikastetxeen berezitasun eta desberdintasunetan oinarrituta, ikastetxe bakoitzak bere plan berezitua eta egutegia adostu beharko du.

– Eskola-garraioa higiene- eta distantzia-neurrietara egokitzea. Eta beharrezkoa duten pertsonetara mugatzea.

– Jolas-orduaren berrantolaketa, Gorputz Heziketako saioen egokitzapena eta protokolo bereziak ezgaitasuna duten haurrekin egin beharrezko saioetarako.

– 200 ikasle baino gehiagoko ikastetxeetan erizain bat izateko aukera baloratzea. 200 ikasle baino gutxiagoko ikastetxeetan, esku-hartzeko edo jarraipenerako protokolo bat zehaztu ahalko da kasuan kasuko osasun etxe edo kontsultategiarekin.

– Ikastetxe guztietan psikologo profesional bat izateko aukera baloratzea. COVID-19ak eta konfinamenduak sorturiko egoerak eragin psikologikoa izan dezake ikasle batzuegan. Hori dela eta, askotan zaurgarriak diren familietako egoera desberdinek eragin zuzena izan dute ikasleengan. Horrenbestez, psikologo batek garrantzi handiko eginkizuna izan dezake ikastetxeetan zaintzarako hezkuntza egokia bermatzeko.

46.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du talka-neurriak har ditzan aniztasunerako arreta kalitatezkoa bermatzeko, ikaslerik atzean utziko ez duena. Hartara:

– Egoeraren azterketa eginen da ikastetxe bakoitzaren errealitatek abiatuta. Azterketa horretan aintzat hartuko dira ikasleen artean antzemandako desberdintasun eta gabeziak, azpimarra berezia jarriz arrakala sozioekonomikoan, bai eta pandemia eta konfinamendu egoeratik eratorritako beharrianak ere.

– Beharrezkoak diren laguntza- eta indartze-baliabideak jaso eta gaituko dira, ikasle ahulenei eta ikasteko zailtasunak dituztenei konpentsatzeko, azpimarra berezia jarriz ingurune sozioekonomiko konplexuetan arreta ematen duten ikastetxeetan; horietan giza baliaibide eta baliaibide material gehigarriak izanen dituzte.

– Premiaz ekinen zaio Aniztasunari Eranztuteko Plana urtea amaitu aurretik berri eta egoera berrira egokitzeko prozesuari.

47.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxeetako ekipamendua hedatu eta birjartzeko eta mantentzeko Plana bultzatzea, eta ikastetxeetan sare publiko ikastetxeen dituzten beharrianen arabera konektibitatea ezar dezan, bai emariari bai azken belaunaldiko WIFlari dagokienez, segurua zentzu guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakasleen, ikasleen eta familien gaitasun digitalen arloko prestakuntza bultzatzea, halako moduz non prestaturik egonen diren krisialdi honetan bitzako egoeraren moduko beste bat gertatuz gero.

48.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aintzatespen handiagoa eman diezaion eskola publikoko irakasleen lan,

inplikazio eta ahaleginari eta Tutoretza-prestakuntzarako Plana bultzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza-beharrizan jakin batzuk sortzen dituzten ikasleen ikaskuntzako irakaskuntza-prozesuen optimizazioa eta hobekuntza bultzatzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikasleen alde sozio-emozionalaren arreta eta laguntza berariazkoa bultzatzea.

Herritarrekiko Harremanetako Departamendua.

49.a Nafarroak Bruselan duen ordezkartzaren 2018ko oroitidazkiarekin bat, “agerikoa” zen Europako Ekintza Plana, zeina 2016an abiarazi baitzen, “2019an berrikusi eta gaurkotu” beharra zegoela. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrikuspen horri ekin dakion edo berrikuspenarekin jarrai dadin, jomugatzat hartuz pandemiak eragindako krisitik heldu den agertoki ekonomiko berria. Berezi beharrezkoa da Topagune Iraunkorren agendak honako helburu hauek izatea: berreraikuntza; krisiak gure gizartean kaltetutako sektore guztiei mesede egin diezaieketen zeharkako proiektuak abian jartzea, eta Europar Batasunetik Espainiari dagozkion funtsak eskuratzea, transferentzien eta kreditu-lerroen bidezkoak. Halatan, Europak agindutako finantzaketa eskuratzeko efizientzia areagotzeaz gain, Europak herritarren aitzinean legitimitatea berreskuratzea ere lortuko da.

50.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemnak egitera, eginkizun aktibo bat izan dezan Europar Batasunak “Generation UE” izenez ezagutzen den planaren bidez estatu kideen esku jarriko dituen funtsak negoziatu, banatu eta kudeatzen direnean.

51.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzat instituzionala susta dezan, euskarazko prestakuntza- eta kultur produktuen online eskaintza handitzeko.

• Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan hurrei nahiz gazteei zuzenduta dauden euskarazko ikus-entzunezko eduki digitalen produkzioa, eta berma dezan eduki horiek edonork doan eskuratu ahal izatea.

• Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du online tresnen gaineko euskarazko prestakuntza bultzatzea, Sarean Euskaraz programaren bidez.

- Nafarroako Parlamentuak administrazio publiko eskudunak premiatzen ditu (Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua) egin beharreko urratsak egin ditzaten ETB3 Nafarroa osoan ikusi ahal izatea errazteko”.

52.a Nafarroako Gobernua premiatzen da bilerara baterako deia egin diezaien Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitania Berriko Eskualdeko lehendakariei, honako arlo hauetan proposamenak lantzeko eta lankidetzaz-esparru horren aukera guztiak aprobetxatzeko:

- Baterako lana egitea Eusko Jaurlaritzarekin eta Akitania Berriko Eskualdearekin, lortzarren Europako Batzordeak finantza-konpromiso propioak har ditzan Erregioen Batzordearen bidez eta Interreg 2021-2027 plan berriaren baitan, estatu kideek beren mugak itxi izanaren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko, horren ondorioz zatikatu egin baitira errealitate ekonomiko, kultural eta linguistiko amankomunak. Jarduketa-esparruek “Europa 2020” estrategiaren barruan kokatu behar dute egon, non Euroeskualdeak Europako eskualdeetako herritarrak, jakintzaren ekonomia eta lurralde jasangarria baititu lehentasun.

- Lurraldeen arteko mugimendu-askatasuna proposatzea pertsonentzat eta salgaietarako, lurralde horietako bakoitzean indarrean dagoen araudia errespetatzearen baldintza bakarrarekin”.

53.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroak Europako erakundeetan duen presentzia aktiboa sendotu eta indartu dezan (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea, Erregioen Batzordea edo Pirinioetako Lan Elkartea, kasu), bai eta nafarren interesentzako sinergia positiboak batzeko baliagarriak diren estatuko nahiz nazioarteko sareetako ere.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Europak hurrengo urteoi begira ezarritako ildo estrategikoen arabera lan egin dezan, bereziki kontuan izanik 2021etik 2027ra bitarteko aurrekontua, eta baliabideak monitorizatze eta lortzeko tresna politiko eta teknikoak bultzatuz, era guztietako proiektuetarako europar funtsen deialdien bidez; bereziki, COVID-19arekin lotutakoetarako.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tolerantziaren, errespetuaren, elkatasunaren, parte-hartze demokratikoaren, pazifismoaren eta kobernanzaren balioak bultzatuz bere eguneroko jardunean, beste erakunde batzuekiko harremanetan nahiz bere politika publikoetan, balio horiei esker heldu baitzen

Europako estatuarteko lehen batasuna, egungo Europar Batasunaren hazia.

54.a 1.-Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Bizikidetasunari buruzko I. Plan Estrategikoa taxutzean aintzat har dezan osasun larrialdiaren eta horren ondorio ekonomiko eta sozialen kariatz biziko dugun egoera berria; hartara, planaren ikusmirak zabalduko eta horretarako mintzakideak gehituko ditu, halako moduan non bermatu egingen baita Nafarroako Foru Komunitatean bizikidetasunaren abordatze integrala egingen dela eta gutxienez ere honako jarduketa hauek jasoko dituela:

a. Desberdinarekiko errespetuan oinarritutako kultura integratzaile bat ezartzera bideratutako jarduketak bultzatzen jarraitzea.

b. Espazioak sortzea, halakoak non gure gizartearen osasun demokratikoa indartuko baita sektore zabalak eta ideologikoki, sozialki nahiz belaualdien ikuspuntutik anitzak direnen parte-hartze eraikitzailean oinarrituak diren kobernanzasistemen bidez, zeinetatik sortzen ahalko bailirateke ekimen adostuak, desberdinarekiko elkartasun, errespetu eta aitortzan oinarritutako bizikidetasun baterakoak, etengabeko elkarrizketa-esparruetan dinamikoak.

c. Adostasun-eremuak sustatzea, esparru sozial eta politikoan gehiengoak partekatua izan den zoru etiko bat adostera bideratuak, memoria-aren, errekonozimenduaren eta erreparazioaren kontzeptuetan aitzinera egin ahal izan dezagun, indarkeriaren deslegitimazioaren bitartez eta iraganaren gaineko ikuspegi kritiko bat edukita.

d. Jarduketa-programak taxutzea Bizikidetasunari buruzko hurrengo planaren oinarrien gainean, esparru guztietarakoak: udalak, hezkuntza, erakundeak, elkarteak...

Osasun Departamentua.

55.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrikuntza eta ikerketa biomedikoa bultzatzeko plan bat egin dezan, bai eta babes-materialak, norbera babesteko ekipamenduak, testak eta beste material sanitario batzuk bertan ekoizteko eta erosteko plan bat ere, COVID-19aren balizko berragerpenei eta beste osasun-larrialdi batzuei erantzutea erraztuko dutenak baina, gainera, apustu estrategiko bat osatuko dutenak gure erkidegoaren suspertze ekonomikoa berrikuntzaren, ikerketaren eta ekoizpen biomedikoaren bidetik lortzeko.

56.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun arloan aurrekontua handitu dezan informazio-sistemak, emaitza-

ebaluaziorako sistemak, berrikuntza eta adimen artifiziala garatzera bideratuta dagoenean, halatan ahalbidetzarren zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta osasungintza-jardueraren emaitzak hobetzea.

57.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun-jarduera birprogramatzeko partaidetzazko plan bat egin dezan, osasungintza-jardueraren normalizazioa lehenetsiko duena irizpide kliniko, sozial eta funtzionalak kontuan hartuta, jardunari lehenbailehen berrekiteko modua emanen duena halakorik egin ezean biztanleriaren osasunak okerrera egin baldin badezake, eta adierazle epidemiologikoen monitorizazioa ahalbidetuko duena gerora daitekeen jarduna modu goiztiarrean desprogramatu ahal izateko, COVID-19aren balizko berragerpenen aurrean.

58.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Publikoa indartu dezan. Zerbitzu horrek bere estrategiak koordinatu beharko lituzke Oinarrizko Osasun Laguntzarekin eta toki administrazioekin, gaixotasun kroniko-degeneratiboen determinatzaileei (elikadura, kutsadura, sedentarismoa, tabakismoa eta abar) aurre egiteko eta klima-aldaketarekin eta globalizazioarekin lotutako gaixotasun kutsakorren epidemia berrietarako alarma- eta euste-sistemak ezartzeko (A gripea, Ebola, SARS, koronabirusa... eta abarren kasuetan).

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du epidemiologiako eta gaixotasun infekziosoen aurka borrokatzeko zerbitzuen trebakuntza indartu eta hobetu dezan.

59.a Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du kontaktuen monitorizazio eta jarraitpenerako Google eta Apple teknologia duten enpresak susta ditzan.

60.a Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eztabaidarako aurkez dezan osasunari buruzko foru lege proiektu bat, osasun publikoa blindatzeko balioko duena, gure inguruko herrialde garatuen pareko finantzaketa bermatuko duena (BPGaren % 8) eta helburu horiei guztiei aurre egiteko aukera emanen duena arlo profesional, sozial, politiko eta sindikalean parte hartzeko prozesu baten bidez.

61.a Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Ospitalegunean Immunologia Zerbitzu bat ezar dezan, ezinbesteko tresna gisa kalitatezko osasun-arreta bermatzeko, Immunologiako laborategi espezializatua indartzeko eta Immunoterapia eta terapia zelularreko tratamenduen kontrol publikoa abian jartzeko eta bermatzeko.

62.a Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoitza-zentro horietako farmazia-arreta berreskura dezan eta arreta hori bertako farmazia-zerbitzu propioek eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalek eman dezaten, guztiz atomizatutako eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin loturarik ez duen eredia zuzenduz.

63.a Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

a). Osasun Eskualde Oinarrizko bakoitzeko Oinarrizko Osasun Laguntzan berma ditzan langileak garrantzizko eta lekualdatzeko ibilgailuak, uniformeak eta ekipamendu pertsonala, ekipamendu teknikoak...

b). Osasun-langileen profilak eta funtzioak birdefini ditzan, haiek administrazio-zereginetatik askatuz, eta pazienteei arreta emateko behar adina denbora berma dezan, norbanakoaren osasun-txartelen (NOT) arabera kupoak urteko % 5 murriztuz, egungo 1.500 NOTeko gehienekoa % 20 murriztu arte. Halaber, administrazioko, gizarte-laneko eta psikologiako langileak indartuko dira.

64.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Farmazia-industriaren informazioa jasotzeko sistema zentralizatua sor dezan, osasun-arloko profesionalei informazio egiazkoa, egiaztatua eta eskuragarri dauden ebidentzia zientifiko onenetan oinarritua eskuratzeko aukera bermatzeko.

– Farmaziako gastua arrazionalizatzeko partidaren gastua handitu dezan, gaur egun 50.000 eurokoa baita (farmaziaren arloko 262.000.000 euroko gastuaren % 0,02).

– Etengabeko prestakuntzaren eta kongresu eta bilera zientifikoaren finantzaketa arautu dezan, osasun-sistema publikoaren helburu estrategikoei erantzuteko.

– Osasunaren hobekuntzan bai bizi-kalitateari dagokionez bai biziraupenari dagokionez ebidentzia garrantzitsurik erakutsi ez duten tratamendu eta terapien kontrol zorrotza indar dezan, haien erabilera mugatuz.

– Etengabeko prestakuntzara eta ikerketa farmazeutikora bideratutako aurrekontu publikoa handitu dezan, Farmazia-industriaren funtsekiko interdependentzia handiagoa sortuz, helburu komunak garatzearen bidetik.

65.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako neurri hauek har ditzan:

1. Beste bultzada bat eman diezaien Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua garatzeari eta indartzeari, giza baliabideak ugarituz, eskura dauden baliabideak aprobetxatuz eta plantillei egonkortasuna emanen dien lan eskaintza publiko sendo bat eginez.

2. Oinarrizko Osasun Laguntza indartu dezan, Nafarroan Oinarrizko Osasun Laguntzaren estrategia (2019-2022) garatuz, zuzkidura ekonomiko egokia ziurtatuz eta sustapen- eta prebentzio-funtzioak garatuz.

3. Pixkanaka, Nafarroako Foru Komunitatean Oinarrizko Osasun Laguntzara bideratutako aurrekontua handitu dezan, legealdiaren amaieran osasuneko aurrekontu osoaren % 25era irits dadin (gaur egun ez da % 14tik gorakoa). Handitze hori berehala hasiko da, datorren udazkenean pandemia berriro agertzeko aukera handia baitago.

Aurrekontu hori aplikatuko da, batez ere, erizaintzako langileen 1.000 biztanleko ratioa handitzeko, legegintzaldiaren amaierara arte pixkanaka, egungo ratioa % 50 handituz. Horrela, osasun-etxeak indartuko dira, beren oinarrizko eremuko hirugarren adineko egoitzetan osasun-arreta hobetzeko eta etxez etxeko arreta areagotzeko, patologia kronikoen jarraipena egiteko teleosasuneko gailuen eta aplikazioen bidez, eta gaixotasun infekzioso jakin batzuen –esate baterako, COVID 19aren– zaintza epidemiologikoa egiteko.

4. Osasun-etxeetako fisioterapeuten, psikologiko profesionalen eta gizarte-laneko profesionalen ratioa bikoiztu dezan, oinarri komunitarioko diziplinarteko arreta-programak ezartzeko behar den ratioa lortu arte.

5. Tele-osasuna sustatzeko behar diren mekanismoak gara ditzan, patologia kroniko nagusienei dagokienez Osasunerako Hezkuntzako aplikazio informatikoak eta datu klinikoen jarraipen elektronikoko sistemak epe ertainean eskura egon daitezzen, besteak beste, osasun-karpetaren bidez, eta horretarako behar adina aurrekontu eskaintzea, asmo handiko helburuak erdiesteko, osasuna hobetzearen eta artatutako pertsonen gogobetetasunaren ikuspegietatik.

6. Profesionalek eta herritarrek oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuen funtzionamenduan eta kudeaketan parte hartzeko mekanismo eraginkor eta errealak gara ditzan, erkidegoko osasun-planak eginez, osasun eskualde oinarrizko bakoitzeko gainerako erakunde publiko eta pribatuen inplikazioarekin”.

66.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du espazio soziosanitario bat ezar dezan, non oinarrizko osasun laguntzak arreta berezia eskainiko dien adinekoen egoitzei, dagozkien barrutietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indartu dezan adineko pertsonentzako, mendekoentzako edo desgaitasuna dutenentzako etxez etxeko laguntza, bai eta etxez etxeko telelaguntzako gailuak ere, zerbitzu horren onuradunen zaintza areagotzeko”.

Eskubide Sozialetako Departamentua.

67.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean kontingentzia-plan bat onets dezan zahar-etxeetarako eta desgaituen egoitzetarako, haietan COVID-19a berriro agertzea prebenitzeko.

Plan horrek aintzat hartuko du aipatu zentroak norbera babesteko ekipamenduez ongi hornituta egotea, positibo bat detektatu ondoko 48 orduko epean testak egitea zentroetako egoiliar eta langile guztiei, zentroen sektorizaziorako protokolo berariazkoak onestea eta gutxienez ere tarteko bi zentro zeharo identifikatuta edukitzearen aurreikuspena, eritasunaren berragerpenik detektatuz gero operatibo egon beharko dutenak bost eguneko gehieneko epean. Tarteko zentro horiek mediku- eta erizain-zerbitzua izanen dute astearen 7 egunetan eta egunaren 24 orduetan.

2. Halaber, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntzak ezar ditzan hilabeteko epean eta kontingentzia-plan horretan kokatuta, beren ahaide zahar edo desgaitua gutxienez ere 2020ko abenduaren 31ra arte egoitzara itzuli gabe etxean edukitzea erabakitzen duten familientzat, ahaide hori mendekoa izan nahiz ez izan. Zenbatekoak izanen dira mendeko pertsonak familiaren babesean zaintzeko laguntzen zenbateko berberak, eta haiek jasotzeak ez du berekin ekarriko Banakako Arreta Programa aldatu beharrik. Egoitzako postua aipatu datara arte erreserbatuta edukiko da.

68.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2020 honetan Oinarrizko Gizarte Zerbitzu guztiak indartu ditzan, gutxienez ere gizarte-langile bat gehituta, eta enplegu agentzia guztiak sendotu ditzan, gutxienez ere orientatzaile bat gehituta, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsona guztiei gizarteratze- eta laneratze-prozesu eraginkorrak bermatzeko. Gehikuntza horiek eginen dira kontuan hartuz oinarrizko eskualde bakoitzean errenta bermatuaren hartzaile diren familia-unitateen kopurua eta agentzia bakoitzari atxikitako langabetuen kopurua, halako

moduz non orientazioa eta gizarte-akonpainamendua bermatuko baitzaie guztiei.

2. Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2020 honetan indartu ditzan gizarteratzearen eta desgaitasunaren arloko hirugarren sektoreko entitateen programak, akonpainamendu soziala, orientazio eta bitartekaritza soziolaborala egite aldera, oinarritzko gizarte-zerbitzuen eta enplegu-agentzien lanaren osagarri moduan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2020an gutxienez ere beste 500.000 euroan gehitu dezan gizarte-larrialdiko laguntzetara bideraturiko partida.

69.a Horregatik guztiagatik, ziurtasun handiagoko eszenatoki batean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du elkarrizketa sozialaren fruitua izanen den enplegu plan bat presta dezan Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan. Plan horrek jasoko ditu erkidego honen garapenean aurrerapausoak emateko politika ekonomikoak, sozialak eta enplegurakoak, aukerak bermatuko dizkie gure erkidegoko lurralde ezberdinetan egoitza daukaten pertsona eta enpresa guztiei, eta genero-ikuspegia aintzat hartuko du, emakumeen enpleguaren suntsiketa ekiditeko eta enplegu horren kalitatea hobetzeko.

70.a EIS eta CEEIS enpresa horien likidezia bermatze aldera, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– 2020an, eta koiunturalki, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100eraino osa dezan dirulaguntza, bazterketa sozialeko egoeran egonik laneratze-enpresetan lan egiten duten pertsonen soldata betetzeko.

– Aurrekontu-orekarako laguntza berrezar dezan gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat.

– Urgentziaz aurrera dezan enplegu-mantentzerako 2020ko ekitaldi osoko laguntzen % 100 (lanbide arteko gutxieneko soldatarako dirulaguntza). Alarma-egoera deklaratu zen eguneko plantilla erreala kontuan harturik; urteko azken hiruhilekoan eginen lirateke jasotako dirulaguntzaren eta urteko gainerako hilabete bakoitzeko plantillaren arteko doikuntza egokiak.

– CEEIS eta gizarteratze-enpresetarako kontratuak erreserbatzeko ekintza-plan bat egin dezan.

71.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren batzorde iraunkorrean adostu ditzan enplegu-politika aktiboen berrantolaketa eta

COVID-19aren osasun-krisiaren ondoriozko lan-eta ekonomia-egoerarako esparru-akordioa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan egin daitezela gizarteratze- eta laneratze-ibilbide pertsonalizatu eta integralak eta akonpainamendu-prozesuak indartzea, horretarako lantaldeak handituz gizarte zerbitzuetan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta/edo gizarteratze- eta laneratze-prozesuak egiten dituzten gizarte-entitateetan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sustapen-lana egin dezan, prestakuntza- eta enplegu-eredu mistoak sortzeko eta enpresetan egiten diren lan-kontraturik gabeko praktikaldietarako araudi bat eratzeko, praktikaldi horien koordinazioa eta jarraipena egitearekin batera.

72.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Ekonomia sozialaren aldeko apustua areagotu dezan, zinezko zutoina baita ekonomia dinamikoago, jasangarriago, berritzaileago eta pertsonen inguruan ardaztua den baterako. Horretarako, bereziki sustatuko ditu gazteen enplegua eta emakumeen ahalduntze ekonomikoa, bai eta pertsona ororentzako enplegu itxuroso eta kalitatezkoa ere.

– Balorazio bat egin dezan Ekonomia Sozialaren 2017-2020 Plan Integralak COVID-19aren krisia hasi zen arte izandako garapenari buruz.

– Azter ditzan Foru Komunitatean ekonomia sozialaren parte diren enpresa eta kolektiboetan COVID-19aren krisiak izandako efektuak.

– Ekonomia Sozialaren II. plana taxutu dezan, Gobernuko departamentu guztiekiko eta zeresana duten eragile guztiekiko partaidetzaz.

73.a Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du dei ditzan kasuko eztabaidagunee-tako bilera urgenteetara egoiliarren senitartekoak, ordezkari sindikal eta politikoak, zahar-etxeen ordezkariak eta desgaituentzako zentroak, Nafarroako Gobernuarekin batera taxutze eta planifikatze aldera beharrezkoak diren epe laburreko eta luzeko aldatetarako, gaur egungo akatsak onbidertzea xede.

Proposatzen da bilera horietan neurri zehatzak azter, planifika eta adostu daitezela, hala nola:

a. Auditoretza urgente bat egitea egoitzetan osasun-krisialdian zehar gertatua aztertzeko.

b. Langileen ratioak handitzea eta haien lan-eta soldata-baldintzak hobetzea.

c. Pertsonak erdigunean ipiniko dituen arreta egokia, kontuan izanik erabiltzaileen eskubideak eta interesak.

d. Arreta soziosanitarioa Nafarroako eskualde guztietan bermatzea.

e. Beharrezkoak diren bitartekoak sortzea, Nafarroako egoitza guztiei, zein ere den haien titularitatea, koordinazioa, kontrola, jarraipena eta lan-ikuskapenak egin ahal izateko.

74.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ahalik eta lasterren azterlan bat egin dadin, krisian zehar bildu diren datuak aprobetxatuz, bakarrik eta laguntzarik edo familia-sarerik gabe bizi diren pertsonen buruz. Proposatzen da Nafarroako Gobernuak neurriak ezar ditzala, azterlan horretan oinarrituta, bakarrik eta familia-sarerik gabe bizi diren edadetuei jarraipen eta akonpainamendu hori egiten segitzeko, haien premiei erantzun ahal izateko, eta ez oinarritzeko premiei soilik.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak premiatzen da:

a). Etxez etxeko laguntza zerbitzua indartu dezan, arreta integralagoa bermatu ahal izateko langile eta zerbitzu gehiagorekin; adibidez, krisiak edadetuengan izandako efektu psikologikoak samurtzeko arreta psikologikoa; eta beste zerbitzu batzuk hedatzea, haiek beren etxeetan bizitzen segitzea bermatzeko eta beren etxeko bizialdiaren iraupena ahalik eta neurri handiengan luza zeko.

b). Plan bat egin dezan edadetuei eta mendekotasuna duten pertsonen beste bizileku-aukera batzuk eskaintzeko, hala nola bizitegi-etxeak eta tutoretzapeko pisuak, eta lankidetzazko etxebizitzari buruz abian dauden proiektuei presako bultzada eman diezaien.

75.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Mahai bat sor dezan, herriko edo auzoko administrazio- eta elkarte-egitura ezberdinak (batetik, osasun-etxea, gizarte-zerbitzuen oinarritzeko barrutiak edo auzo-unitateak, hezkuntza-zentroak eta abar; bestetik, prebentzioarako arreta-zerbitzuak, zaintza-sareak, auzokideen elkarteak...) bilduko dituzten auzo- eta erkidego-organok koordinatu, sortu eta sustatzeko, xedetzat harturik Mahai bakoitzaren esparrukoak diren premiei erantzuten dieten sareak eta erkidego-proiektuak sortzea, prebentzio aldetik jomuga jarri haur, edadetu eta mendekoentzako arreta berezian.

76.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

- Garapenerako lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeaz hausnar dezan.

- Garapenerako lankidetzaren finantzaketarako aurrekontu-konpromisoari euts diezaien, harik eta legegintzaldiaren amaieran aurrekontuaren % 0,7 iritsi arte.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jaso ditzan.

77.a 1. -Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako prestazio eta zerbitzuei bultzada handia eman diezaien eta hobetu ditzan, ezarrita dauden koordainketak murriztuz eta erabiltzailearen ekarpena haren errentaren eta ondarearen zuzeneko proportzioan zehaztuz.

2. Nafarroako Parlamentuak apustua egiten du egoitza bitarteko arretaren eredu berri baten alde, zeinean sektore publikoak lidergo handiagoa izanen baitu eta Pertsonarengan Ardazturiko Arreta Integralaren eredu berria garatuko baita. Eredu horrek zentro txikiagoen aldeko apustua egiten du, bizikidetasun-unitate txikiagoen inguruan antolatuta egonen da, eta xedetzat hartuko du espazioak eta arreta soziosanitarioa hobetzea, COVID-19a edo etorkizunean sor litekeen edozein antzeko pandemia hobeki prebenitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du aurrekontu-partida berriazko bat sor dezan egoitzetarako eta desgaituentzako zentroetarako eraberritze-proiektuak finantzatzeko, COVID-19a prebenitze aldera eta aurrerapausoak ematearren egoitza bitarteko arretaren eredu berrirantz”.

78.a Nafarroako Parlamentuak apustua egiten du Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera abiarazi ondoren paratzen diren funts gehigarriak pobrezien aurkako borrokara eta gizarteratze- nahiz laneratze-politikak indartzera bidera daitezzen.

Era berean, funts horiek bideratuko dira errenta-bermearen, errenta bermatuaren eta haur-pobreziaren aurkako borrokaren gaitan programa-akordiotik eratortzen diren konpromisoak betetzera.

79.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du 2020. urtea amaitu aurretik onets dezan baimenei buruzko dekretu berria, eta lan egin dezan pertsonarengan ardazturiko arretaren eredu berria sendotzearen alde

gure erkidegoko egoitza guztietan, publikoak nahiz pribatuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bultzada eman diezaion inbertsio-lerro bati, zeinetan inbertsioek xedetzat izanen baitute zentro propioak eta toki entitateenak birmoldatu eta birgaitzea, halako moldez non egoitzak, desgaituentzako zentroak eta gizarte-zerbitzuetak beste zentro batzuk egokitu eginen baitzaizkie pertsonarengan ardaztuta egonen den arreta-eredu berri baten ondoriozko beharrazanei. Eredu horrek zenbait aldaketa eginen ditu espazioetan, COVID-19ari edo antzeko epidemiei aurre egiteko prebentzio neurriak hartzea erraztuko dutenak.

80.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Laguntza garatzeko plana egunera eta abiaraz dezan, halaber erreparatuko diena arlo horietan COVID-19aren krisiaren ondorioz sorturiko premiei.

81.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarteratze Planaren eguneratze, egokitze eta aplikaziorako bultzada eman dezan, COVID-19aren krisiaren ondoriozko premia sozial berrien eta eginiko ebaluazioaren emaitzaren arabera.

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordea

82.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari proposatzen dio handitu dezan zuntz optikoa Foru Komunitate osoan hedatzeko inbertsioa eta, halaber, ahalegina bidera dezan negoziatziora eta lankidetzara publiko-pribatura telekomunikazio operadoreekin adostasunak lortzeko, nafar guztiak zuntz optikoaren kablerako sarbidea izatea lortze aldera, edonon bizi direla ere. Horretarako, garrantzitsua da Nafarroako Gobernua NASERTI-Cen bidez eskaintzen ari den prezioak aldatzea eta 2020ko merkatura egokitzea, betiere aintzat hartuta biztanle gutxien dituzten eskualdeak.

83.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrikuntzaren bidez susta dituzan –zentro teknologikoentzako eta proiektuetarako laguntzen bitartez– energia garbiaren ekoizpenarekin eta hura gordetzearekin zerikusia duten proiektuak, prozesuaren kudeaketa eta eraginkortasuna hobetze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrikuntzaren bidez susta dezan –zentro teknologikoentzako eta proiektuetarako laguntzen bitartez– biomedikuntzaren sektorea negozio-ildo gisa, bai material medikoaren eta analisisetarako laborategiko mate-

rialaren ekoizpenari dagokionez, bai ZIUetarako ekipo bereziak eta norbera babesteko ekipamenduak ekoizteari dagokionez, autohornikuntzara ahalik eta gehien hurbiltzea ahalbidetuko duena.

84.a Ezaguerak, berrikuntzak eta azpiegitura digitalek Nafarroako ekonomiaren susperraldia bideratzeko bidea izan behar dute. Gobernuak Nafarroan oinarri teknologikoko enpresak garatzeko duen trakzio-eginkizuna ziurtatu behar du, Nafarroako berrikuntza eta estatu-proiektzioa sustatuz.

1. Unibertsitateko beken programa hobetzeko plan bat taxutu behar da, ziurtatzeko gabeziak dituzten ikasleen beharrazanak jasotzen direla eta Nafarroako ikasle guztiei ezagutza eta gaitasunak aukera berdintasunez garatzen ahalbidetuko diela.

2. 2021eko lehen hiruhilekoan hasiko dira Medikuntzako eraikin berria eraikitzeako obrak, lehenbailehen bere osotasunean eta modu eraginkorrez erabilgarri egon daitezzen eraikina eta ikasgelak, bai eta laborategiak eta simulaziorako ebakuntza-gelak ere”

85.a Nafarroako Gobernua premiatzen da Navarre International Artificial Intelligence Centre (NIAIC) -Centro Internacional Navarro de la Inteligencia Artificial - Adimen Artifizialeko Nazioarteko Nafar Zentroa- sor dezan. Zentro horren funtsezko xedea izanen da oinarrizko ikerketa zeharkako eta bikaintasunekoaren garapen hobezina bermatzea adimen artifizialaren eremu nagusietan; finean, bermatzea, adituek dioten moduan, oinarrizko ikerketak –industriar edo merkatuan, oro har, berehalako aplikazio zuzenik zertan izan ez duenak– bere tokia izan dezan. Xedea da zentro hori Europako eta munduko erreferentziazko zentroa izatea.

86.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskubide digitalei buruzko foru lege proiektu bat presta dezan, neurriak hartu eta beharrezkoak diren inbertsioak egiteko esparru gisa, behin betikoz konpontzeko “azken milia”ri buruzko arazoa; izan ere, hori dela-eta Nafarroako herri askok ez dituzte betetzen gutxieneko baldintzak konektibitateari buruzko oinarrizko beharrazanei erantzuteko. Beharrezkoa da ahalbidetzea digitalizazioa oinarrizko kontsumo-ondasuna izatea eta herritar guztiei bermatzea, kontuan izan gabe haien baldintza sozioekonomikoak eta edozein dela ere bizi diren udalerrira. Prozesu horretan, kontsumo-puntuetarainoko estaldura koordinatu behar da toki entitateekin, halako moduz non sarea publikoa izanen den eta gainera aukera emanen digun epe laburrean burujabetza digitalari buruzko esparru bat lortzeko.

87.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du unibertsitateko tasen eta beken arloan beharrezkoak diren neurriak har ditzan, Nafarroan inork ez dezan arazorik izan unibertsitatean sartzeko edo unibertsitateko ikasketekin jarraitzeko COVID-19ak eragindako osasun krisitik eratorritako krisi ekonomikoaren ondorioz. Halaber, departamentuak beharrezkoak diren larrialdi planak ezarriko ditu premia-egoeran dauden ikasleei laguntzeko.

88.a Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikerketa susta dezan, bi ardatzetan:

– Lehentasuna ematea, epe eta baliabideei dagokienez, biomedikuntza, Nafarroako produktio-ehunduraren dibertsifikazioa eta industrian efizientzia eta ingurumen-portaera hobetzeko ekoberrikuntza –prozesuen optimizaziora eta ingurumenarekiko errespetuzkoak diren ezaupidetan oinarritutako produktuen sorkuntzara bideratua– xede duten ikerketa-proiektuak. Hori dela eta, honako hauetako agenteen lana bultzatuko da: SINAI-Nafarroako I+G+b Sistema (INAMAT eta ISC-Institute of Smart Cities), CENER-Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala, IdisNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutua.

2017tik 2020ra bitarteko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren arabera, eskualde batek berrikuntzaren arloan liderra izan nahi badu, iker-tzaile onenak izateko xedea izan behar du. Horrenbestez, beharrezkoa da talentua prestatu, mantendu eta erakartzeko aukera eskaintzea. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen esparruan, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko hitzarmen bat sustatuko du, xede izan den duena lankidetzaren esturako programa bat sortzea, ikerketarako eta ezagutza eta talentuak trukatzeko proiektuak bultzatzea eta nazioarteko unibertsitateekiko eta, zehazki, mugez gaindiko unibertsitateekiko harremanak sustatzea.

89.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- 2020-21 ikasturtea hasi baino lehen, teknologiarako sarbideari buruzko arrakalari erantzutea (etxeko ordenagailu kopurua, sim txartelak, Internetarako sarbidea eta ikasteko toki egokia), bai eta horien erabilerari buruzko arrakalari (guraso eta tutoreek Interneti eta aplikazioei buruz dituzten ezaupideak) eta ikastetxe publikoen eta bertako irakasleen prestakuntzari eta baliabideei buruzkoari ere.

- Herritarrei teknologia berriei eta Nafarroan elkarrekin bizi diren hizkuntzei buruzko prestakun-

tza ematea, on-line izapide administratiboetarako sarbidea izan dezaten (erregistroak, errolda, errenta aitortpena, atzeritarren arretarako zerbitzuekiko hitzorduak eta abar) eta horrela inklusio digitala faboratzeko.

- Tokiko entitateekin koordinaturiko soluzio partikularrak ematea, abiadura handiko Internet eramateko pertsona bat bizi den, negozio bat dagoen, zerbitzu bat eskaintzen den edo eskatzen duen txoko bakoitzera; azken batean, kontua da fokua azken milian jartzea, guztiok konektibitatea izan dezagun.

- Sektore publikoaren barruan kudeaketa teknologikoan diharduten emakumeen eta gizonen arteko ekitatearen garrantziari heldzea, Hiri Adimendunen Espainiako Sarearen Berrikuntza Sozialerako Lantaldeak gomendatzen digun moduan. Hain zuzen, hori izan den da eredu nagusia beste sektore batzuetarako, IKTak gure hirietako eta herrietako egunerokoan egonen diren etorkizunari begira.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jaso ditzan.

90.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Kalitatezko ikerketa zientifiko publikoa sustatu eta babes dezan eta talde ikertzaileei beharrezkoak dituzten funtsak eta lan baldintza duinak diezazkien. Halaber, ezinbestekotzat hartzen da administrazio publikoen gidaritza Nafarroan garatzen diren eta funts publikoak jasotzen dituzten I+G+b prozesuetan.

2. Osasun arloko ikerketa susta dezan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egituraren, bereziki Nafarroako Ospitalegunean, hori baita Nafarroan egiten den osasun arloko ikerketa publikoaren erreferentziatzeko ospitalea.

3. Patenteen eta funts publikoen partaidetza duten osasun arloko ikerketen emaitzei buruzko kontratuak arau ditzan eta horietan gardentasun osoko klausulak eta interes publikoko irizpideak sar ditzan, etorkizunerako arrazoizko prezioak bermatzeko.

4. Zientziaren plan publiko bat sustatzea, produktio-ehunduran berrikuntza eta garapen teknologikoa bultzatzeko, bereziki industrian, balio erantsi handiagoko ekonomia baterantz aurrera egite aldera.

91.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konektibitatean aurrera egin eta banda zabaleko eta 5G sarea Nafarroa

osorako estaldurarekin ezartzeko lau urteko plana gara dezan, horrek ahalbidetuko baitu landa eremuen aurrerabide ekonomiko eta soziala eta berdintasun digitalerantz aurrera egitea, eta Gobernu Digitalaren garapenean aurrera egin dezan, eta telelana, leihatila elektronikoa, telemedikuntza eta telehezkuntza susta ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garapen hori toki entitateekin lankidetzan egin dezan eta haiekin hitzarmenak sina ditzan herrietako ezarpena errazteko.

92.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Berrikuntzaren Erosketa Publikorako Atala aktiba dezan, hura finantzatzeko konpromisoarekin. Hala, Gobernuaren trazio-eginkizuna ziurtatuko dugu Nafarroan oinarri teknologikoa duten start-up motako enpresak garatzeko. Deialdi orotatik bazterturik geldituko dira paradisu fiskaletan erregistraturiko enpresa eta konpainiak, Frantzia, Danimarka eta Polonia bezalako herrialdeetan egin duten moduan.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua.

93.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduera ekonomikoa gelditu izanaren ondorioak arintze aldera abian jarritako abalen lerroa handitu dezan. Bai elkarren bermerako sozietateei laguntzeko lerroak, bai Nafarroako Gobernuak Sodenaren bidez kudeatzen ahal dituen eta kudeatu behar dituen abal zuzenen lerroak. Halaber, abal horiek baimentzeko baldintzak berrikusi beharko dira, halako moduan non baldintza horiek ez baitira bihurtuko lortu nahi den xederako oztopo, baizik eta enpresa gehien-gehienentzako baldintza malgu eta eskuragarri, dauzkaten xedeak eraginkorrak izan daitezzen.

94.a Neurri-sorta bat onestea proposatzen da, oinordetza-zailtasunak dauzkaten enpresak edo enpresa-jarraitutasuneko zailtasunak dauzkatenak suspertzeko, oinordetzan hartzeko edo lan elkartuko kooperatiba edo lan-sozietate bihurtzeko; neurri-sorta horretan nahitaez jaso beharko dira, besteak beste, inbertsiorako eta zirkulatzaileerako abalen lerro berariazkoak eta birmoldatze/eraldatze prozesuetarako aholku-emate teknikorako laguntzak.

95.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroa Berritu Plan berri bat zuzkitu eta susper dezan, ibilgailu berriak erosteko laguntzak jasoko dituen, helburu bikoitzarekin: salmenten igoerak foru erkidegoko nahiz nazioko ibilgailu-industriari lagun diezaion eta

Nafarroako Foru Ogasunaren diru-bilketa areagotzea, jarduerak eragindako zeharkako zergen bidez. Planak berekin ekarri beharko du ingurumena gutxiago kutsatzen duen ibilgailu bat erosten duenari laguntzea; halatan, laguntza progresiboa izanen da faktore horren arabera, halako moduan non laguntzarik handiena izanen baita ibilgailu % 100 elektrikoa erosteko.

96.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan lan egin dezan Enplegu Planaren gaineko akordio bat bilatzeko, pandemiatik heldu den agertokira egokitua eta Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu 2020-2023 Planean kokatua.

97.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Laguntza-programa bat abiaraz dezan, COVID-19a hedatetik heldu den krisiaren ondorioz krisian dauden enpresa txiki eta ertainak berregituratzeko eta horiei beste bultzada bat emateko. Laguntza-programak honako alderdi hauek jaso beharko ditu, besteak beste:

- Deialdi horren xedera bideratutako baliabide ekonomikoak 8 milioi eurora iristen dira.

- Diruz lagundu daitekeen egintza ezartzeko, aintzat hartuko da COVID-19aren krisiaren ondorioz enpresak ordainketa-ahalmena koiunturalki jaitsi izana.

- Enpresa txiki eta ertainek proposamen honean aurreikusitako laguntza ekonomikoak jasotzen ahalko dituzte baldin eta honako arlo hauetako industriako enpresa txiki eta ertainak badira eta krisi egoera pairatzen ari badira: erauzketa, eraldaketa, ekoizpena, arestiko horiei lotutako zerbitzu teknikoetakoa (produktua-prozesuari lotuak) edo informazioaren eta komunikazioen gizartearen arlokoak.

- Eman beharreko laguntzak itzuli beharreko aurrerakinen bidez gauzatuko dira, eta publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioei jarraikiz emanen dira.

- Enpresa bakoitzarentzako laguntzaren zenbatekoa 2020ko ekitaldirako aurrekontuan jasotako kutxako fluxu negatiboaren % 100era iristen ahalko da, 250.000 euroko mugarekin.

- Egindako aurrerakinen itzulketak finkoak direla ulertuko da, eta aldi behin eginen dira, bost urtean zehar; honela, hain zuzen ere: bideragarritasun plana betetzeko ezarri den epea bukatzen denean, enpresek urtebeteko gabezialdia izanen dute itzulketak egiten hasi aitzin. Hau da, lehenda-

biziko itzulketa 2022an egingen da, eta gainerakoa, berriz, aldian-aldian bosgarren urtea bete arte.

98.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du honako neurri hauek sar ditzan Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planean:

a). Saltoki txikienezko digitalizazio-tresnak, halako moduan non eskaintzak metatuko dituzten plataformak sortuko baitira, gertuko merkataritza on line saltzea erraztuko baita eta ethez etheko salmeta ahalbidetuko baita.

b). Herritarrentzako bonuak jaulki eta banatzea, alarma egoerak eta ondorengo krisi ekonomikoak ukitutako saltoki txikietan erosi dezaten. 10 langile baino gutxiago eta urtean 2 milioi euroko fakturazio-bolumena duten enpresa txikiei mugatua. Premia-egoeran dauden pertsonen diruz gehiago lagunduko zaie bonu horietan. Neurri bera erabiliko da tokiko turismoan.

c). Mugikortasun-neurriak, saltoki txikietarako irisgarritasuna sustatzera eta saltoki handien baldintzetara berdintzera bideratuak (aparkalekua-ren kostua, garraio publikoaren sustapena, eta abar).

d). Merkataritzako etxabeak:

- Iraganean merkataritzarako erabili diren edo erabil litezkeen etxabeen errolda bat egitea eta gertuko merkataritza bultzatzeko neurriak hartzea, eta beste errolda bat egitea hutsik dauden merkataritzako etxabeena eta asmo handiko neurri eta laguntzak hartzea horiek aktibatuzko.

- Etxabe horiek zaharberritzeko laguntzak ezartzea eta, horretarako, sektoreko araudia berrikustea.

- Merkataritzako etxabeak alokatzeko laguntzak ezartzea.

e). Saltoki handiak: saltoki handiak irekitzeko ordutegia arautzea. Sektore horretako langileen lan-baldintzak eta osasuna babestea, denda txikiak eta tokiko merkataritza babesteko neurria ere bai baita.

f). Kontsumoaren arloko pedagogia: toki entitateekin lankidetzan, prestakuntza-planak eta kontzientizazio eta sustapen kanpainak bultzatzea, hurbiltasuneko produktuak, Km 0-koak, kontsumi daitezkeen, zirkuitu laburrak eta ekonomia zirkularra, enplegua sortzeko eta mantentzeko, zerga-baliabideak sortzeko, ingurumenaren arloko abantaila-iturri gisa. Helburua da aldaketa sakona lortzea kontsumo-ohitura eta -ereduetan.

99.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du honako neurri hauek sar ditzan Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planean:

a). Nafarroako Industria Plana eta S3 espezializazio adimentsuaren estrategia gaurkotzeko prozesua abiaraztea, honako hauek kontuan hartuta:

- Jasangarritasun-irizpideak eta ekonomia zirkularra lehenestea.

- Jarduera estrategikoak lokalizatzeko, birlokalizatzeko eta deslokalizatzea ekiditeko estrategiak taxutzea.

- Erabakiguneak eta negozio-aukerak Nafarroan kokatzearen aldeko apustu egitea.

- Gure produkzio-ehundura dibertsifikatzearen aldeko apustu egitea.

- Beste lurralde batzuekin sinergiak sortzeko tresnak zehaztea, jarduera endogenoa garatzearen arloan.

- “Estrategikoen” kategorian sartzea S3 espezializazio adimentsuaren strategiak estrategikotzat hartutakoei gehitutako beste arlo batzuk (autogintza, mekatronika, elikagai-katea, energia berriztagarriak eta baliabideak eta osasuna). Arlo estrategiko gisa hartu behar dira arretagunea pertsonen zaintzan jartzen duten guztiak eta beren jarduera ekonomia zirkularrean oinarritzen dutenak.

- Nafarroako enpresetan CO2 nahiz berotegi efektuko gasen emisioa murrizteko plan bat taxutzea eta ingurumenerako mehatxu argia diren enpresa-proiektuak berrikustea. Horretarako, prozedura piztaileak edo zehatzaileak garatuko dira.

- Sektore publikoa aitzindari izatea lankidetzarako publiko-pribatuaren estrategian, planak taxutu eta lehentasunak ezartzean:

b). Eskualdeko garapenerako agentziak: krisi honek agerian utzi du toki ekonomia baino askoz ere kalteberagoa dela ekonomia hiperglobalizatua. Leheneratze sozioekonomikoa tokiko ikuspegitik ahalbidetzeko neurriak identifikatzea eta proposatzea ezinbestekoa izanen da berreraikitzeari begira. Gure proposamena da diagnosis eta neurriak jasotzen dituen txosten bat egin dadin, kontuan hartuta eskualdeen errealitatea eta tokiko ekonomia; horretarako, mahai bat eratuko da eskualdeko garapen agentziekin. Entitate horiek funtsezkoak dira tokiko garapen ekonomikorako, eta horren ekarpenak funtsezkoak izanen dira Erkidegoaren suspertze ekonomikorako.

Hortaz, gure proposamena da toki entitateekin lankidetzan taxutu eta gara daitezkeen merkataritza

erakartzeko eta antolatzeke planak, txikizkako merkataritzaren egoeraren diagnostikoa egiteko eta jarduketa-ildoekiko nahiz neurri zehatzekiko programa bat taxutzeko. Halaber, hirigintzaren antolamenduaren esparruan, merkataritzajarduera garatzen den espazio fisikoaren analisia eginen da, tokian tokiko alderdi sozialak, ekonomikoak nahiz merkataritzakoak aztertzeke.

100.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du honako neurri hauek har ditzan:

– Ekonomia soziala, lankidetzakoa eta solidarioa aldeztara bideratutako aurrekontu-baliabideak handitu ditzan.

– Industria-jarduerak birlokalizatzerara jo dezan. Oinarrizko ondasunen hornidura lehenetsitasun bihurtu da berehalako etorkizunari begira, eta ezinbestekoa da ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena eskaria dagoen tokira hurbiltzea, teknologia berriek produktibitatea lantzea ahalbidetzen baitute.

– Industria-sarea bultzatzeko eta eta horren produktioa balio erantsi handiagoko jardueretarantz dibertsifikatzeko finantzaketa erraz dezan. Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da garapen teknologikoa eta berrikuntza ekoizpenaren fase guztietara iristea eta enpresaren tamaina nahiz jardueraren sektorea kontuan hartzea.

– Toki-ekintzako taldeen eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzarako tresnak sor ditzan, Nafarroaren aberastasunaren eta aniztasunaren gaineko ezagutza sustatzeko eta, hartara, barneko turismo-zirkuituak sendotzeko. (137).

101.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du honako neurri hauek har ditzan:

– Medikuntza Pertsonalizatuko eta Doitasun-medikuntzako Estrategia Integrala taxutzen buka dezan, eta berrikuntzarako enpresen plataforma abian jar dezan, IDISNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren esparruan, bai eta osasun arloko enpresa-proiektuak garatzeko programa bereziak ere.

– Testuinguru honetan garatu beharreko ekintza planean turismoaren sektorearekin batera lan egiten jarrai dezan, Nafarroa COVID-19aren ikuspuntutik turismoko destino seguru gisa proiektatzeko beharrezkoak diren jarduketak sustatzeko xedez, eta turismo-jarduerako gastua epe motzean sustatzeko, barne-ekaria bultzatuz.

– Industria sortzaile eta digitalen sektoreko erreferentziatzko eragile pribatuekin lan egiten

jarrai dezan, Nafarroan balio-katea gero eta sendoago eta indartsuagoa eraikitzea ahalbidetuko duen enpresa-eskosistema ezartzeko, horrek berekin baitakar kalitatezko enplegua sortzea. Eta, bidenabar, horren gaineko tratamendu fiskala berrikus dezan, sektorearen garapena aldeztan jarraitzeko.

– Nafarroako enpresak nazioartekotzeko laguntza areagotu dezan; bereziki, Nazioarteko Planeko herrialde lehenetsietarako esportazioak.

– Denda txikien negozio-ereduak eraldatzeko prozesuak aldeztu ditzan, batik bat digitalizazioaren bidez, eta sustapen ekonomikoko arloak arautzeko foru lege proiektua taxutzeko eta onesteko prozesua burutu dezan.

– Ekintzailatza kooperatiboko programak eta krisian dauden enpresak birmoldatzekoak babes ditzan ekonomia sozialaren esparruan.

– Enpresa-proiektuetan administrazio-izapideak soildu ditzan.

– I+G+b-n inberti dezan enpresa-lehiakortasuneko palanka gisa, eta enpresen etengabeko digitalizazioaren aldeko apustu egin dezan; izan ere, hori ezinbestekotzat jotzen da modernizazioaren nahiz balizko egiturazko aldaketan bidean.

– Eraldaketa digitalaren prozesua bultzatzean, Nafarroaren garapenerako ardatz nagusi gisa.

102.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du honako neurri hauek har ditzan:

– Nafarroa kohesionatu, osasuntsu, jasangarri, industrial eta lehiakor baten aldeko apustu egitea, S3 espezializazio adimentsuaren estrategia COVID-19aren osteko agertoki berrira egokituz eta hori gidatzen duten printzipioak, bai eta Nafarroaren garapenerako ardatzak ere, mantenduz.

– Digitalizazioaren esparruan egon badauden lan-ildoak sendotzea eta bultzatzea, eta orobat oinarri teknologikoko ekintzailatza aldeztoko ekimenak eta datu-zientziako laborategia, eta erreferentziatzko proiektu berriak bultzatzea eta garatzea; esate baterako, Berrikuntza Digitaleko Poloa, non plataforma birtual digitalarekin, esku hatzen duten eragileen sarearekin nahiz horren gobernantzarekin lotutako lanak bukatu beharko bailirateke, eta urrats sendoak egitea azpiegitura fisikoei dagokienez. Bidenabar, prestakuntza duala, lanbide gaikuntzako eta enplegua galtzen duten pertsonen gaitasun digitalak garatzeko sistemak sustatu behar dira, eten digitalari aurre egiteko.

– Trantsizio energetikoari buruzko bide-orria betetzea. Horretarako, eta Europako Itun Berdearekin nahiz klima aldaketari buruzko lege proiektuak estaturako ezartzen dituen helburuekin bat, Nafarroako Gobernuak klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko foru lege proiektua onetsi beharko du, diren aukera guztiak baliatze aldera ekonomiaren eta industriaren modernizazioari, enplegu-sorrerari eta inbertsioak erakartzeari begira, horrek guztiak oparotasun inklusibo eta ingurumenarekiko errespetuzko baterako bidea irekitzen baitu.

– Beharrezkoak diren izapideak erraztea eta soilitzea, energia berriztagarria sortzeko proiektuak eraikitzea eta abian jartzea al bait azkarren gara daitezten, eta dauden parke eolikoak birpotentziaitzeko proiektuak aldezte, hori sustatuko duen araudi berekia garatuz, ingurumen-baimenak koordinatuz, sare elektrikora sartzea gaituz eta haize-sorgailu berriak paratzea sustatuz.

– Automogintzaren sektorearentzako pizgarrien programa bat erreibindikatzea, eta, hortaz, Europan nahiz estatuan ibilgailuen sektorean eskaria akuilatuko duten ekimenak babestea.

– Ostalaritzaren, turismoaren eta merkataritzaren sektoreak, bai eta sektore horietan inplikaturik dagoen hornidura-katea osoa nahiz gehien kaltetu direla jotzen diren sektoreak ere, leheneratzeko plan bat garatzea, aurrekaririk ez duen geraldian baten ostean jardura suspertzeko eta leheneratzeko xedez.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua.

103.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du landa-garapenerako politiken arloko bere ekintza pizgarri handiago bihurtzeko.

Egia bada, Gobernuak dioen bezala, pandemia honetatik irtetea inork ez duela atzean geratu behar, neurri zehatzak hartu beharko dira alarma-egoerak bereziki zigortzen dituen sektoreak suspertzen laguntzeko: abeltzaintza (ardiak eta haragitarako behiak, zezenketarako azienda, oilaskoa, batez ere), baratzezaintza eta, jakina, mahatzaintza eta ardogintza.

Produktuak sustatzeko neurriak lagungarri gerta daitezke epe ertainera, baina epe laburrean beste neurri zuzen batzuk beharko dira, azpisektore produktibo horiek berehala suspertzeko balioko dutenak, garaiz iritsi nahi bada, muga-mugan dauden ustiategi eta enpresa batzuk itxi aurretik.

Berrikuntzak, oro har, suspertzeko motor nagusia izan behar du, baina modu nabarmenean eza-

rra beharra dago honako arlo hauetan: nekazaritzako elikagaien katean, eta digitalizazioan aurrera egiteko bidean, teknologia kate osoan sartzerakoan eta balio erantsian parte hartzerakoan.

Gure ustez, Nafarroako Estrategia Adimentsua (S3) berrikustean, COVID-19aren ondorengo ingurune berrira egokitzeko, ezinbestekoa da suspertzeko funtsezko bi osagai mantentzea: nekazaritzako elikagaien katea eta enpresa-dimentsioa handitzea.

104.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du susta dezan energia berriztagarriak txerta daitezela ureztatzeak modernizatzeko proiektuetan, energia-konsumoko motaren bat dutenetan

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako ubidea eta Ureztatzen eta Uraren Estrategiaren Foru Plana gara ditzan, Nafarroako ubidearen eremu ureztagarria garatzeko, gainerako ureztatze-eremuetan bezala. Efizientziak, ura aurreztearen, energia aurreztearen eta ingurumen-inpaktuaren ikuspegitik, funtsezko zeregina izan behar du.

105.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Klima-anbizio handiagoa sustatzea klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko foru lege berri baten bidez.

2. Industriaren esparruan ekonomia garbia eta zirkularra sustatzea, Nafarroako Ekonomia Zirkularren Agenda aplikatuz.

3. Ekosistemen eta biodibertsitatearen zaintza eta berrezarpena bultzatzea, biodibertsitateari buruzko foru lege berri bat sustatuz.

4. Bidezkoa, osasungarria eta ingurumena errespetatzen duen elikadura-sistema baterantz aurrera egitea.

106.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroa Suspertu planean honako gai hauekin lotutako neurriak jaso ditzan:

a). Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari laguntzeko neurriak, sektore horrek duen garrantzi estrategikoa kontuan hartuta, zeina agerian geratu baita alarma-egoeraren aldi osoan. Neurri horiek sektorearen ekoizpen-ereduaren benetako aldaketa sustatu behar dute. Hori dela eta, neurri horiek ekoizpen-baliabideen pilaketari, ustiategi tamainari eta laguntzei mugak jartzen dizkieten arauak ere ekarri behar dituzte berekin, zergen eta burokraziaren arloko eskakizunetan progresibitatea aplikatuz aipatutako tamainaren arabera. Azkenik, neurri horiek zirkuitu laburrak indartzea ahalbidetu

beharko dute, eta landa-mundu indartsu, sendo, iraunkor eta orekatu baten alde lan egin beharko dute, elikadura-burujabetzan aurrera egiteko urratsak emanez.

b). Kalitateko produktuak sustatzea, norberarena eta gertukoa aitortzea, elikagaien kalitateari eta segurtasunari buruzko Europako araudiak, laneko arauak, ingurumenekoak eta inguruan aberastasuna sortzeari buruzkoak betetzen dituen produktua aitortzea.

c). Nafarroako Gobernuak elikagai-katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea guztiz betetzen dela kontrolatzea. Lege horren azken erreformaren ondoren, debekatu egiten da dirua galduz saltzea, hartara nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreei bidezko prezioak ordaintzen zaizkiela bermatzeko.

d). Merkaturatze-zirkuitu laburrak bultzatzeari lehentasuna ematea, hurbileko eta tokiko merkataritzari laguntzeko neurriak barne.

e). Erosketa publikoa tokiko nekazaritzako elikagaien sektorea suspertzeko tresnatzat hartzea. Ospitaleek, eskola-jantokiek eta egoitzek elikagaiak erostean, pleguetako prezioa ez ezik, klausula sozialak, tokiko produktuenak eta prezio duintakoak ere kontuan hartu behar dira. Azken batean, elikadura osasungarria sustatzea.

f). Lantalde bat sortzea, Nafarroan elikadura-subiranotasunerantz iraunkorra izanen den eskala txikiko nekazaritzarako plan estrategiko bat egiteko. Plan hori modu parte-hartzailean egiten da, eta epe labur, ertain eta luzean garatu beharreko ekintzak jasoko ditu, bera garatzeko berariazko aurrekontu-esleipenarekin.

g). UAGN-Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra, EHNE-Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna eta UCAN-Unión de Cooperativas Agrarias de Navarra erakundeekin adostutako Nekazaritza Politika Erkidearen eredu berria defendatzea, eskubide historikoak ezabatzeko, nekazari pertsonalari lehentasuna emateko, familiako nekazaritza-ustiapena defendatzeko edo ekonomiaren eta gizartearen eskakizunekin bat datozen nekazaritza-ekoizpen iraunkorrak sustatzeko.

h) Aisialdiko baratzeetan autolaborantza babestea, ingurumena errespetatzen duen jardueraren alde, ingurumenari eta kontsumo jasangarri eta osasungarriari buruz kontzientziazten laguntzen baitu, bai eta lurzoru emankorren ezauzgarriak babesten ere. Horretarako, honako hau proposatzen dugu:

- Aisialdiko baratzeen erabilera eta jarduerak arautzea, pizgarri moduan.

- Toki-entitateekin lankidetzan, aisialdiko baratzeen foru-parke bat sortzea, hala nahi duten herritarren eskura aktibatu eta jarriko dituen, zehaztutako baldintzetan, aipatutako jarduerarako balio duten lursailak, gaur egun beste erabilera batzuk dituztenak edo aipatutakoa baino balio txikiagoko jardueretarako erabiltzen direnak.

107.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du 2020ko irailaren 30a baino lehen onar dezala klima aldaketari eta eredu energetikoaren trantsizioari buruzko foru lege proiektu bat, Parlamentuari igortzeko, honako gai hauek jasoko dituen:

a). Xedea: arau-esparru eta esparru instituzional eta instrumental egokia ezartzea, klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko, eta karbono gutxiko energia-eredu baterantz igartzeko, energia berriztagarrietan oinarrituta, eta Nafarroako gizartea eta haren ingurunea baldintza klimatiko berrien aurrean prestatzeko, arlo horretako nazioarteko jarraibide eta konpromisoari jarraikiz.

b). Xedek:

- Berotegi-efektuko gasa (BEG) murrizteko nazioarteko konpromisoari laguntzea, eta Nafarroan klima-aldaketara egokitzen laguntzea, biztanleriaren eta lurraldearen kalteberatasuna murriztuz.

- Nafarroa lurralde jasangarri eta erresilientea- ren erreferente bihurtzea klima-aldaketara egokitzeari dagokionez.

- Nafarroan pertsonen eta ekosistemen osasuna babestea lortzea, gizarte-sektore ahulenei arreta berezia eskainiz. Politika publikoetan jasangarritasun energetikoaren baldintzak eta klima-aldaketara egokitzea txertatzea.

c). Konpromisoak: nazioarteko konpromisoak betetzeko, foru legean helburu gisa ezarriko da berotegi-efektuko gas-isuriak gutxienez % 45 murriztea 2030erako eta % 80 2050erako, 2005ekoekin alderatuta, honako hauekin bat etorriz: 2050erako Europako Energia Estrategia, 2030erako Nafarroako Energia Plana eta KLINA-Nafarroako Klima Aldaketaren Ibilbide Orria.

d). Gobernantza: foru legean gobernantza-sistema bat ezarriko da, helburu hauekin:

- Nafarroako administrazio publikoen erantzunkidetasuna sustatzea klima-aldaketaren eta eredu energetikoaren trantsizioaren politikak aplikatzean, bakoitzari dagokion eskalan eta behar diren bitarteko eta tresnekin, Nafarroako

Gobernuaren eta toki-entitateen sektore-politikak beren eskumenen esparruan txertatuz.

- Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko estrategien erabateko integrazioa bultzatzea politika sektorialetan, planetan eta programetan.

- Laguntza herritarrek eta eragile sozial eta ekonomikoek parte har dezaten KLINA-Nafarroako Klima Aldaketaren Ibilbide Orriaren, 2030erako Nafarroako Energia Planaren eta energiaren eta klima-aldaketaren arloko plangintza-tresnen jarraipenean eta ezarpenean.

e). Nafarroako Energiaren eta Klima Aldaketaren Agentzia sortzea, izaera publikoko erakunde gisa, nortasun juridikoarekin eta autonomia administratibo eta ekonomikoarekin.

f). Nafarroako Klima Funtsa sortzea eta eratztea, berotegi-efektuko gas-isuriak arintzeko eta isurketa horiei lotutako giza osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktu kaltegarriari aurre egiteko neurriak finantzatzeko. Funts hori modu berezian integratuko da departamentu eskudunen aurrekontuan.

108.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du honako neurri hauek har ditzan:

- Klima-aldaketari buruzko lege bat bultzatzea, aurre egin behar diegun erronkei aurre egiteko ezinbesteko tresna izan dadin. Lege horrek ikuskapen-programa bat jasoko du, zeinaren helburua izanen baita emandako baimenetan ezarritako araudia eta ingurumen-eskakizunak betetzen direla kontrolatzea eta fiskalizatzea. Horrela, ingurumen-baimen integratua behar duten instalazioak ikuskatuko dira: nekazaritzako elikagaien instalazioak, harrobiak, konposatu organiko lurrunkorren (KOL) kontsumitzaileak, hondakin-uren araztegiak (HUA), hondakinen kudeatzaileak, hondakin arriskutsuen ekoizleak, mindak kudeatzeko instalazioak.

- Isurketa-eskubideak salerosteko araubideari lotutako enpresek jaulkipenak egiaztatzeke egindako txostenak baliozkotzea eta isurketen inskripzioa egitea EBko Erregistroan; bertan, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideei buruzko araudiaren mende dauden jarduerak kontrolatzeko eta horien isuriak egiaztatzeke adierazleak aurkeztuko dira (CO₂ren isurketari buruzko urteko txostenak, baimen-aldaketak eta jarraipen-planak, funtzionamendu-aldaketari buruzko txostenak).

- Hondakinen isurketa zigortuko duen fiskalitate berdea onartzea (biodegradagarriak ez diren erabili eta botatzeko norbera babesteko ekipamenduak, erabilera bakarrekoko plastikozko poltsak,

biodegradagarriak ez diren erabili eta botatzeko baxerak, biodegradagarriak ez diren erabilera bakarrekoko kapsulak eta abar); fiskalitate berdea, neurri berdeak ezartzen dituzten enpresak sarituko dituen eta ekoizpen-eredua aldatzeko baliabideak emanen dizkiguna; fiskalitate berdea, 'zero hondakinak' helburuaren alde lanean ari diren enpresak sarituko dituen eta produkzioaren ziklo osoan beren kontura inportatutako elementuak eta produktuak ordezkatzeko dituen; erregai fosilen erabilera motelaraziko duen fiskalitate berdea.

- Ikuspegi berri bat hartzea ingurumen-babesari dagokionez. Hala, ingurumen-legeria urratzen duenak, zigorra jasotzeaz gain, eragindako kaltea konpondu beharko du.

- Berrindustrializazio berdearen eta ekonomia zirkularraren estrategia bat ezartzea, ingurunean eta kutsadura, baliabideak eta biodibertsitatea kudeatzeko jardueretan eragin positiboa izanen duten industrietan enplegua sor dadin sustatzeko. Horrela, 2017-2027ko Nafarroako Hondakinen Planaren Prebentzio Programaren helburuak beteko dira. Programa horren helburuetako bat izanen da 2020rako hondakinak 2010ean sortutakoekin alderatuta % 12 murriztea.

- Ingurumenari buruzko hezkuntzarako, sentibilizatorako eta kontzientziaziorako jarduerak bultzatzea, herritar guztien inplikazioa sustatuz, baita adin goiztiarrenetatik ere, gure ingurunea hobetzen lagunduko duen kontzientzia kolektiboa sortzeko, 2016an ingurumen-hezkuntzako jardueretarako eta ingurumen-boluntarioei laguntzeko hasitako programen bitartez, eta ingurumen-hezkuntzako eta -boluntariotzako proiektuetarako laguntzen urteko deialdia berreskuratuz.

- Hezkuntza Departamentuarekin eta Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiarekin batera, Ekonomia Zirkularrari buruzko titulazio eta akreditazio profesional berri bat diseinatzea eta koordinatzea, enplegu berdea eta zirkularra gaitzeko eta sustatzeko.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agenda jasotzea.

109.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du honako neurri hauek har ditzan:

- Foru Dekretu bidez baldintza higieniko-sanitarioak egokitzea, gure landa eremuan bizimoduak eta bitartekoak mantentzeko eta Foru Komunitatean nekazaritza eta abeltzaintzako jardueraren sorrera sustatzeko.

- Ekoizpen ekologikoa sustatzeko inbertsioak lehenestea, Foru Komunitatearen eskaria bermatzeko eta sendotzeko, eta elikagai ekologikoen eta tokiko elikagaien soberakinak kudeatzeko formulak aztertzea, ingurumenarekin jasangarriagoak diren nekazaritzako eta abeltzaintzako ereduak bultzatzeko eta haietara igarotzeko.

- Elikagai ekologikoen eta tokiko elikagaien soberakinaren erosketa publikoa, elikagai horiek beharrak dituzten herritarrei helarazteko, kaltebe-ratasun-txartelak erabiliz.

- Tokiko erakundeek, herritarrek edo kooperati-bek sustatutako berokuntzaren eta elektrizitatearen hurbileko kontsumorako instalazio berriztagarri txiki eta ertainetan inbertitzeko zuzeneko laguntzen lerro bat ezartzea; horien artean, ura edo bio-masa erabiltzea lehenetsiko du departamentuak.

- Landa-ingurunean autoenplegua sustatzea, lantegi kolektiboak sortuz eta herri-lurrak erabiliz, bai eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak kudeatzeko belaunaldien arteko modu berriak ere.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jaso ditzan.

110.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako neurri hauek har ditzan:

1. Ingurumenaren babesarekin eta energia-eraginkortasuna hobetzeko estrategiekin konprometitutako ekoizpen-prozesuen, produktuen eta ondasunen garapena bultzatzea, eta, beraz, klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen dutenak.

2. Trantsizio ekologikorako, emisioak murrizteko eta energia-kontsumoa arrazionalizatzeko plan estrategiko bat egitea eta abian jartzea, eredu zirkularretarantz, honako hauek oinarri hartuta: energiaren eta materialen kontsumoa murriztea, tokiko ekoizpen-, banaketa-, merkaturatze- eta kontsumo-ereduak, 0 hondakinen politika, garraioaren murrizketa eta mugikortasun iraunkorren aldeko apustua.

3. Apustu irmoa energia berriztagarrien, eraikinen birgaitze ekologikoaren, berrerabilpenaren, birziklapenaren eta hondakinen kudeaketaren alde, eta funtsezko ondasunen (osasungintza, ehungintza, elikagaigintza, teknologia...) ekoizpena birkokatzearen alde.

4. Airearen kalitatea hobetzeko plan bat egitea, Erriberako eremua lehenetsiz, eta kutsaduraren aurkako protokoloak egitea udalekin, bereziki Iruñekoarekin eta Tuterakoarekin.

111.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du bultzada handia eman diezaion familia-nekazaritza eta ustiategi txikiak defendatzeko, ingurumena babesteko eta enpresa handiek nekazaritzako elikagaien katea kontrolatzeko gai izango den Nekazaritza Politika berriari, kontsumorako oinarrizko elikagaien prezioen espekulazioa saihestuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bultzada handia eman diezaion nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari.

112.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan garapen jasangarriko gidak eta planak egitea, oinezkoek eta bizikletek espazio publikoa gehiago erabil dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Kontzeju eta Udalerrien Federazioarekin lankidetzan, lege-proiektu bat aurkez dezan, udalerrri eta eskualde bakoitzean mugikortasun ez-kutsagarriko planak egitea sustatzeko. Plan horiek bidegorrien eta oinezkoentzako pasealekuen definizio fisikoa egiten dute, eta biztanle-gune bakoitza egituratuko dute, baita gune mugakideekiko komunikazioak ere, autoek azken urte hauetan inbaditu duten espazio publikoaren zati bat berreskuratuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du iturri berriztagarrietako energia elektrikoaren garraio publiko kolektiboa martxan jar dezan eta hobetzeko behar diren neurri guztiak aztertu eta abian jar ditzan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bizikletak eta bestelako ibilgailuak erosteko diru-laguntza lerro bat gara dezan, mugikortasun iraunkorra errazteko.

113.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako hauek egin ditzan:

1. 2021-2027 LGPa nekazaritza-jardueraren eta landa-garapeneko politiken inguruko jardueraildoei estaldura eman behar dien esparru-estategiatzat hartzea, bai eta landa-ingurune biziaren bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko balio duen tresna estrategikotzat ere, gizarte- eta ingurumen-eredu jasangarri baten esparruan.

2. NPBaren bigarren zutabearen egindako ahaleginarekin jarraitzea, bai Europar Batasunak Nafarroara bidera ditzakeen Erkidegoko funtsekin, bai funts propioekin.

114.a Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustia-tegiak maneiatzeko teknika berrien aholkularitza, ikerketa eta esperimentazioa sustatzea eta bultzatzea, bai eta ekoizpen-teknikak eta izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzeko teknikak berritzea ere, eta ekoizpen-prozesu osoaren digitalizazioan aurrera egitea.

Kultura eta Kirol Departamentua.

115.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du plan bat egin dezan, "Nafarroak txalo" izen apropos izanen lukeena, eta helburutzat hartuko duena gizarteak krisi honetan eginiko esfortzuekiko esker ona helaraztea. Konfinamendu-aldian balkoietako txaloekin gertatu den bezala, Nafarroako Parlamentutik berotasun eta goxotasun hori herritar guztiei itzuli nahi diegu, etxeko kontsumo digitalaren bidez eta, presentzialki, antzoki, zinema, zuzeneko musikako areto, erakusketa, ekitaldi, kirol-txapelketa eta -erakus-taldi eta abarren bidez.

Plana emanaldi presentzial nahiz digitaletarako kirol-kultur bonuen eskaintza batean mamituko litzateke, herritar guztiei modua emate aldera kulturaren eta kirolaren sektorearen suspertze ekonomiko eta sozialean parte hartzeko. Halaber, kirol-kultur bono solidarioen eskaintza bat proposatzen dugu, krisiaren ondorio latzenak pairatu dituzten pertsonentzat, hala nola langabetuak eta erretiratuak, bai eta osasungintzarako kirol-kultur bonoak ere, pentsatuak osasungintzako eta oinarritzko sektoreetako langile guztientzat, zeinak biziak salbatzeko borrokan jardun baitira, bai eta konfinamendu-aldian zehar oinarritzko gaien hornidura eta gure bizitza bera errazten. Horrela jokatuz, krisiak gogor jo dituen bi sektoretan kontsumorako pizgarriak ematea ez ezik, herritar guztiak suspertze honen partaide izan daitezen ere nahi dugu; batez ere, pandemiaren unerik kritikoenetan borrokaren lehen lerroan lan egiten aritu diren horiek.

116.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du ondare historiko kulturala zaindu, zaharberritu, mantendu eta ezagutarazteko plan bat abiaraz dezan, Nafarroako toki entitateekin kofinantzatuta, krisi ekonomikoak eraikuntzan, ostalaritzan, merkataritzan edo turismoan izandako ondorioak samurtze aldera.

117.a 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du bono kulturalak sor ditzan, gutxienez ere % 15eko deskontua emanen dutenak liburu, musika eta abarren erosketara eta kontsumoan, hurbileko saltokietan, Baluarte eta Navarra Arenako emanaldietan eta Nafarroako museo-sareko museo ezberdinetarako sarreretan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du kultur bonu horiek aipatu deskontua populazio-sektore ezberdinentzat handitzeko modua izan dezaten; adibidez, gazteentzat, langabetuentzat, familia ugariarentzat, familia gurasobakarrentzat eta abar.

118.a Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du honako neurri hauek sar ditzan Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planean:

a). Departamentua ezohiko baliabidez hornitzea, kultur-alarreko talka-plana egikaritzeko, zeina 2020ko maiatzaren 21ean onetsi baitzuen Nafarroako Parlamentuak.

b). Nafarroako kultur esparruko profesionalen eta amateurren egoera duintzeko eta egonkortzeko neurriak hartzea.

c). Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko Foru Legean jasotako xedapenak, jarduketak eta eskubideak betetzea.

119.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du berriaz azter dezan zer eragin izan duen COVID-19aren krisiak Nafarroaren berezko herri- eta folklore-adierazpide kulturalen jardunean, hala nola erraldoi-konpartsak, dantzariak, txistulari-taldeak, jota, bertsolaritza... eta kalteturiko kolektiboekiko elkarrizketaren bitartez neurriak taxutu ditzan haien iraupena bermatzeko, haien jarduna egungo egoerara egokitzeko eta haien eragin soziala areagotzeko.

120.a Parlamentuak, kirol alorrean, Nafarroako Gobernuia premiatzen du ahalik eta azkarren jardun dezan, bermatzearen herritarrek modua izatea egungo kirolgintzan eta oinarritzko kiroleko talde eta klubak jardueretan aritzeko. Horrela, ezohiko laguntzen lerro bat ezarriko da instalazioak egokitzeko, aire irekiko kirolgintzarako zedarritze berezietarako eta landa-lursailletako jarduketarako.

121.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du honako neurri hauek har ditzan:

- Ohiz kanpoko deialdi urgenteak egin ditzan, kultur jardueraren geldialdiagatik eta horren suspertze motelarengatik gure erkidegoko kultur sektore ezberdinak nozitzen ari diren egoeraren larritasuna samurtze aldera; dauden laguntzak berregitura ditzan, epeak luzatuz eta laguntza horiek eskuratzeko baldintzak malgutuz; foru-, nazio- eta europar funts bereziak eskuratzeko modua negoziatzen dezan, departamentuak Nafarroaren hurrengo aurrekontuetan izanen duen pisu espezifikoa aldatzea xede harturik, harik eta Euro-

pako batez bestekora iristen den arte, zeinak aurrekontu horien % 1,5 egiten baitu.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jaso ditzan.

122.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Kultur sektorearen eraldaketa digitala aldezteko programa bat taxutu dezan, sorkuntza- eta erakusketa-aukera berriak ezagutu eta saiatzeko; ezagutarazpen, merkaturatze eta banaketarako katalogo digital bat sor dadin susta dezan; eta bideak urra ditzan publikoarekiko harremanerako formula berriak aurkitzeko.

- Erakusketa-egitarau eta -ekintza berriak sor ditzan, propioak nahiz beste departamentu batzuekiko lankidetzan eginak, zuzeneko arte eszeniko sektorearentzakoak, Nafarroako talde profesionalen kontratazioa ekarriko dutenak. • Agenda-saturaziorik gerta ez dadin, eta normalki horrelako emanaldirik izan ohi ez duten gune publikoak fabora ditzan, egitarauak ezohiko gune eta zirkuituetan gauzatu behar dira.

123.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere gain har dezan, kirol-federazioentzako kosturik gabe, Nafarroa osoko osasun-zerbitzua, Nafarroan federatuak diren kirolarientzat, maiatzaren 15eko 64/2003 Foru Aginduan adierazitako baldintzetan, eta ezertan galarazi gabe federazioek segi ahal izatea planteatu denaz bestelako zerbitzu bat eskaintzen, hala-koa eskatzen duten kirolarientzakoak.

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua.

124.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Nafarroako Gobernuak gai zibiletan, lanekoe-tan edo merkataritzakoetan gatazkak auzibidetik kanpo konpontzeko mekanismoak susta ditzan, eta, bereziki, kaleratzeen ondoriozko prozeduretan eta banku-kontratuetan abusuzko klausuletan; horietan, gainera, jurisprudentzia baketsua den “lekuko kasuei” lotutako adostasun-protokoloak aktibatu beharko lirateke.

- Genero-ikuspegia, desgaitasun-ikuspegia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak-2030eko Agendarekin hartutako konpromisoak jaso ditzan.

125.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bermaturiko zerbitzu espezifikoko bat abian jar den, Nafarroan familiaren laguntzarik ez duten gazte migratzaileen autonomia- eta emantzipazio-prozesuak bultzatzeko, gazte horiek helduaroan integratzea erraztuz, hainbat eremutan lagunduz, arreta berezia jarriz mentoretzan, ikuspegi integral batetik, genero-ikuspegia, desgaitasuna eta Garapen Jasangarriaren Helburuak eta 2030eko Agenda ere jasoz”.

126.a Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrera egin dezan Nafarroako Justizia Administrazioaren eraldaketa digitalean, telelana sustatuz, epaiketa telematikoak eginez eta espediente digitala behin betiko ezarriz.

Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planari buruzko Batzorde Bereziaren irizpenaren eztabaidan bazterturiko boto partikularrak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 62.8 artikulua ezarritakoarekin bat, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020 ekainaren 25ean egindako bileran, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planari buruzko Batzorde Bereziaren irizpenaren eztabaidan bazterturiko boto partikularrak.

Iruñean, 2020ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. boto partikularra, Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztua.

1. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere politika fiskalaren arloko jarduera pizgarri handiago bihur dezan, zerga igoera oro saihestuta, oraingo inguruabarretan kaltea dakartelako jarduera eta indarberritze ekonomikorako, eta halako moduz non ez den murriztuko gastu, eskari, produkzio eta enpleguaren suspertzeko goiztiarra.

Azken batean, begiratu behar zaio zergen ezaugarri den pizgarrien izaerari, zeina baliatu behar dugun gure zerga-sistema lagungarri izan dadin indarberritze sendoago eta azkarrago bat lortze aldera. Horren bidez gure gizarteari kostu latzak saihestuko dizkiogu eta baliabideak sortuko ditugu krisiaren ondorioen aurrean horien beharra dutenentzat.

2. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerga edo tributu eta lehiaketa arloetako neurri berriak abian jar ditzan, arintze aldera enpresa askok pairatzen duten likidezia urriaren arazoa, zorpetze handiagoan sartzeko beharrik gabe; era horretan ahulduko dira likidezia eza dela-eta enpresa kaudimendunen bideragarritasun ekonomikoa auzitan jar dezaketen bideak.

Zehazki, proposatzen da enpresek epe luzeagoak izatea aitorpenak aurkezteko, aldizkako zergen kasuan; enpresei zerga arloko zorrak salbuespenez geroratzeko aukera ematen dieten aitorpenen eta autolikidazioen kategoriak zabalagotzea; eta sozietateen gaineko zerga aurkezteko eta ordaintzeko epea luzatzea, 2019an hasitako zergaldiei dagokienean. Horiek horrela,

ondotik neurri orokorrak aurkezteko ditugu, bai eta sozietateen gaineko zergaren inguruko beste batzuk ere.

Neurri orokorrak

1. Aldizkako zergen aitorpenak aurkezteko epea luzatzea (maiatza eta 2. hiruhilekoa).

– Uztailaren 30era arte luzatzea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidazioak edo autolikidazioak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenak aurkezteko eta ordaintzeko epea.

– 2020ko bigarren hiruhilekoari dagozkion aipatutako aitorpen-likidazioak edo autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko epea 2020ko irailaren 1era arte luzatzea.

Neurri hori egokia da, zeren eta otsaileko eta martxoko eta lehen hiruhilekoko aitorpenekin egin denaren ildoari jarraitzen baitio; izan ere, hilabetez luzatu dira COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz jarduera bertan behera utzi edo murriztu duten enpresen likideziarako erraztasunak emateko eta inguruabar hauetan zerga-betebeharrak betetzea errazteko epeak, alarma-egoeraren ondoko ondoko luzapenak kontuan hartuta.

2. Apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legean aurreikusitako zerga-zorren salbuespenezko gerorapenez baliabideak daitezkeen aitorpenak eta autolikidazioak zabaltzea (apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legea, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko), baldin eta borondatezko epean aurkeztu eta ordaintzeko epea martxoaren 14tik irailaren 1era bitartean amaitzen bazaie.

Neurri horrekin, besteak beste, 2020ko 2. hiruhilekoko aitorpen eta autolikidazioetara zabaldu nahi da zerga-zorren salbuespenezko geroratzeari heltzeko aukera, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz jarduera uzteak edo murrizteak eragindako enpresen likidezia bultzatzeko, eta erraztasunak eman nahi dira inguruabar horietan zerga-betebeharrak betetzeko, alarma-egoeraren ondoko ondoko luzapenak ikusita, martxoko, apirilko eta lehen hiruhilekoko aitorpenetarako onetsitakoarekin bat etorriz.

3. 2019an hasitako zergaldiei dagokien sozietateen gaineko zerga aurkezteko eta ordaintzeko epea luzatzea.

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 40.5 artikuluan xedatutakoaren ondorioz, zergaldia amaitu eta hurrengo 6 hilabeteen ondoren urteko kontuak onetsi ez dituzten erakundeentzat, urteko kontuak onesten diren egunetik hasita hurrengo 25 egun naturaletara arte luzatzea ohiko batzar orokorrak aurreko ekitaldiko kontuak onesteko epea, betiere zergaldia amaitu eta hurrengo 6 hilabeteen ondorengo 25 egun naturaleko epea errespetatuta.

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak aldatu egin zuen derrigorretutako pertsona juridiko baten gobernu- edo administrazio-organoak urteko kontu arruntak edo laburtuak, banakakoak edo bateratuak egiteko hiru hilabete epea, sozietatearen ekitaldia ixten denetik zenbatzen hasita, bai eta, legez eska badaiteke, kudeaketa-txostena egiteko epea ere; halaber, sozietateei buruzko legeriak legez derrigorrezkoak diren gainerako agiriak egiteko epea aldatu zuen, eta epe horrek beste hiru hilabete izanen ditu, 2020ko ekainaren 1etik aurrera zenbatzen hasita. Gainera, ezartzen du aurreko ekitaldiko kontuak onesteko ohiko batzar orokorra nahitaez bilduko dela urteko kontuak egiteko epea amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan, eta, beraz, erakunde guztiek kontuak onetsita eduki beharko dituztela ekitaldiko lehen hamar hilabeteen barruan.

Horrenbestez, Sozietateen gaineko Zerga ekitaldiko kontabilitate-emaiztatik abiatzen denez, beharrezkoa da 2019an hasitako zergaldiei dagokien Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko epea, bai eta, hala badagokio, kasuan kasuko diru-sarrera ere, egokitzea COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak urteko kontuak formulatzeko eta onesteko epeak direla-eta aurreikusitako aldaketara.

Sozietateen gaineko Zerga

4. Konkurtso-prozedura batean ekoizpen-unitate bat eskuratzean elementuen balorazio fiskala egitea.

COVID-19aren ondorioz gaur egun bizi dugun krisi sanitarioaren ondoren aurreikusitako krisi ekonomikoak, tamalez, konkurtso-prozedura ugari

sortuko ditu enpresa-eremuan, alarma-egoeraren epeen etetea desagertzen denean.

Ildo horretan, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, arau berezi berri bat ezartzen da, konkurtso-prozeduretan ekoizpen-unitateak eskuratzeari buruzkoa.

Kontabilitate-arauekin bat etorritik, konkurtso-prozedura batean unitate produktibo bat eskuratzen denean, unitate produktiboarekin jasotako aktiboen arrazoizko balioa unitate horrengatik ordaintzen duen prezioa baino handiagoa bada, kontabilitateko diru-sarrera bat sortuko da, aktiboen arrazoizko balioan baloratu behar direlako kontabilitateko ondorioetarako.

Hori dela eta, emaitzen kontuan diru-sarrera bat aitortzen da, zeina jasotako elementuen ezkutuko gainbalio batzuei baitagokio, eta, jakina, ez baitauka eskura dauden diru-funtsekiko korrelaturik.

Zuzenketa-aurik ez badago, orain arte gertatu den bezala, fiskalitatea galga bat izan daiteke konkurtso-prozeduretan ekoizpen-unitateak eskuratzeako, hain zuzen ere gainbalio tazitu horiei dagokien sozietateen gaineko zerga ordaindu behar izatearen ondorioz, eta zaildu egiten du indarrean dagoen konkurtso-legeriaren aitortutako xedea, hau da, lehiakidearen enpresa-jardueraren jarraitutasuna. Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako sozietateen gaineko zergaren foru-arauetan aurreikusita dago.

5. 2019rako eta 2020rako zerga-oinarri negatiboak konpentsatzeko muga kuantitatiboak aldi baterako kentzea.

COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz jarduera eten edo murriztu zaien enpresen likidezia bultzatzeko asmoz, planteatzen da 2019an eta 2020an hasitako zergaldietan aldi baterako ezabatzea enpresek aplikatu gabe dituzten zerga-oinarri negatibo guztiak konpentsatzea eragozten duten muga kuantitatiboak, neurri horren bidez, gaur egungo egoeran, haien likidezia erraztu ahal delakoan eta osasun-krisiak haien emaitza-kontuan izaten ari den eragina geldiarazi ahal delakoan.

6. Galerak konpentsatzeko carry-back sistema.

Aldi baterako ezartzea (2020. eta 2021. urteak) jarduera ekonomikoaren zerga-oinarri negatiboen atzeraeraginezko konpentsazio-sistema bat. 2020an sortutako zerga-oinarri negatiboa konpentsa liteke 2019ko ekitaldian aitortutako zerga-oinarri positiboen aurka (oraindik autolikidatu gabea), hala badagokio, ekitaldi horretan alde aurretik sartutako zergen kasuan kasuko itzulketak sortuz. Proposamena da zerga-oinarri negatiboak aurreko

ekitaldietako oinarri positiboen aurka konpentsatzeko sistema bat aldi baterako ezartzea (galerak konpentsatzeko carry-back sistema).

Antzeko neurriak sartu dira dagoeneko Europako herrialdeetan, hala nola Norvegian eta Polonian.

Neurri horren bidez, operadore ekonomikoek 2019ko ekitaldietan sartutako Sozietateen gaineko Zergaren itzulketak lortu ahal izanen lituzkete, 2020an aurreko ekitaldian aitortutako mozkinen aurka izandako galerak konpentsatzearen ondorioz. Neurri horri esker, galerengatiko kreditu fiskal bat, hasiera batean etorkizunean konpentsatu daitekeena, likido bihurtuko litzateke, dagokion kreditua sortu zuten aurreko ekitaldietako mozkinen bidez konpentsatuko litzatekeelako.

7. Obligazioa mugaeguneratzen denetik kreditu bat fiskalki kengarritzat jotzeko igaro behar den epea sei hilabetetik hiru hilabetera murriztea.

COVID-19aren ondorioz gaur egun bizi dugun osasun-krisia dela-eta aurreikusten den krisi ekonomikoak berekin ekarriko du, zalantzarik gabe, zordunen kaudimengabezia-egoera ugari, gure ekonomiak jasandako aurreko krisi ekonomikoetan egiaztatu ahal izan den bezala, eta horrek enpresak behartuko ditu kreditu jakin batzuen balio-narriadurak eragindako gastuak kontabilitatean erregistratzera. Testuinguru horretan, eta Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarria zergaren subjektu pasiboan benetako ahalmen ekonomikora hurbiltzeko, kreditu bat fiskalki kengarritzat jotzeko igaro behar den epea sei hilabetetik hiru hilabetera murriztea proposatzen da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen (aurrerantzean, SZFL) 20.1.12 artikulua a) letraren arabera.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

8. Galerak konpentsatzeko carry-back sistema. Aldi baterako (2020. eta 2021. urteak), jarduera ekonomikoaren zerga-oinarri negatiboen atzeraeraginezko konpentsazio-sistema bat ezartzea, aurreko 6. proposamenean sozietateen gaineko zergari buruz azaldutakoa bezalaxe.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (OEEJDZ).

9. Konkurtso prozedura batean ekoizpen-unitate bat eskuratzean elementuen balorazio fiskala egitea.

Konkurtso-prozedura batean ekoizpen-unitate bateko elementuen balorazio fiskalari buruz Sozietateen gaineko Zergan proposatutako neurriei dagokienez, beharrezkoa da OEEJDZren kostu

bidezko ondare-eskualdaketen modalitatean zergapetuta ez egotea konkurtso-prozeduran eskuratutako ekoizpen-unitateetan sartutako higiezinak eskuratzeagatik. Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako OEEJDZren foru-arauetan aurreikusita dago.

3. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du hainbat zerga-pizgarri har ditzan enpresak Foru Komunitatean inbertitzera bultzatzeko.

Zehazki, pizgarri horiek honako hauek lirateke:

Aparteko amortizazio azeleratua, mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik kenkaria, inbertsioetarako erreserba berezia (IEB), aparteko mozkinak berrinbertitzeagatik salbuespena, ibilgetu materialeko elementuetan inbertitzeagatik kenkaria eta inbertsioak, besteak beste.

1. Sozietateen gaineko Zergaren zergadun guztientzako aparteko amortizazio azeleratua, 2020ko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra arte eskuratutako aktibo berriei dagokienez.

Horrela, erakundeek beren jarduera ekonomikoaren suspertzea bultzatzeko behar dituzten inbertsioak egitea erraztuko da.

2. Finantzaketa pribaturako pizgarria: Mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik aparteko kenkaria, gutxienez urtebete inbertsioari eustearen baldintzapean:

- % 10eko kenkaria, 100.000 euroko gehiengo oinarriarekin, mikroenpresetan, enpresa txikietan eta ertainetan inbertitzeagatik.

- % 15eko kenkaria, 150.000 euroko gehiengo oinarriarekin, mikroenpresetan, enpresa txikietan eta enpresa ertain sortu berrietan edo sortu berrietan inbertitzeagatik.

- % 15eko kenkaria, 150.000 euroko gehiengo oinarriarekin, konkurtsoan eskuratutako ekoizpen-unitateak erosteko inbertsioagatik.

Neurri horren helburua finantzaketa pribatua sustatzea da, jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta pertsona juridikoen ekintzailatza-jarduera sustatzeko. Bizkaiaren antzeko neurri bat onetsi da, eta ez da eskatzen enpleguari eustea.

3. Inbertsioetarako erreserba berezia (IEB): 2019an eta 2020an lortutako irabazien kargura egindako zuzkiduretarako, oro har, % 60ko aldi baterako murrizketa ezartzea —egungo % 45ekoaren orde— Gaur egun, mikroenpresek baizik ez dute aplikatzen % 60a.

Helburua da, suspertze ekonomikoa bultzatzearen esparruan, 2020, 2021 eta 2022an enpresa-jarduerari atxikitako ekoizpen-ondasunetan inbertsio-ahalegina sustatzea 2019ko eta 2020ko irabazien kargura, eta enpresa ez deskapitalizatzea.

4. Ibilgetu materialeko eta higiezinetak inbertsioetako elementu berrien inbertsioagatik kenkaria:

- Aldi baterako kenkaria % 5 handitzea 2020an eta 2021ean egindako inbertsioengatik.

Helburua da, jarduera ekonomikoa bultzatzearen esparruan, enpresen inbertsioa sustatzea.

- Kenkaria aplikatzeko eskubiderik sor ez dezaketen elementuak ezabatzea (adib.: lursailak, erabilitako elementuak edo turismoko ibilgailu automobilak, FISLren 23.3.e) artikuluan aurreikusitakoek bestelakoak) kenkaria aplikatzeko baldintza gisa inbertsio-ahalegina betetzen den aztertzeko orduan (inbertsioak ibilgetu materialean lehendik dagoen kontabilitate-balio garbiaren % 10 edo % 5 gainditu behar du). Hala ere, ez du zentzurik inbertsio-ahalegina neurtzeko lursailak bezalako elementuak kontuan hartu behar izateak, horiek kenkaria bera aplikatuz kanpo geratzen direnean.

Helburua da erraztasunak ematea ibilgetu materialeko elementu berrietan inbertitzeagatik kenkaria aplikatzeko aurreikusitako baldintzak bete daitezen.

9. Aparteko mozkinak berrinbertitzeagatik salbuespena: aldi baterako (2019an eta 2020an) % 50etik % 100era igotzea ibilgetu materialaren, ukiezinaren eta higiezinetak inbertsioen ondare-elementuak kostu bidez eskualdatzean lortutako errentak zerga-oinarrian ez sartzea.

COVID-19tik eratorritako larrialdi sanitarioaren ondoren suspertze ekonomikoa bultzatzearen esparruan, honako hau lortu nahi da: ibilgetu materiala, ukiezina eta higiezinetak inbertsioak eskualdatzean enpresa-mozkinak berrinbertitzen laguntzeko, proposatuz onura fiskala aipatutako eskualdatzeetan lortutako errenta guztietara iritsi behar dela, 2017ra arte zegoen modu berean eta Araban, Gipuzkoa edo Bizkaian dagoen modu berean.

10. I+G+B arloko kenkaria: 2020an abian jarritako I+G+B proiektuak gauzatzeko epea luzatzea, eskumena duen departamentuak eskatu eta onetsi ondoren.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

11. Finantzaketa pribaturako pizgarria. Atal honetan bertan sozietateen gaineko zergari buruzko inbertsioa errazteko aurkeztutako neurri-multzoren 2. proposamenean planteatutako kenkaria zabaltzea.

18. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere bi hilabeteko epean alda dezan bere egitura eta murriztu dezan departamentu-kopurua, bai eta goi-kargudunen, burutzen eta izendapen askeko lanpostuen kopurua ere, proportzio berean.

34. proposamena

Bizigarritasunari buruzko beste dekretu bat onestea, egungo baldintzak malgutzeko, lehendik dauden etxebizitzaren gainean zedulak lortzeko baldintza ezabatzeko eta gaitasun teknikoa eta antolamendukoa duten udalei bizigarritasun-zedulak lortzeko izapidea egiteko ahalmena emateko.

35. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar dezan hilabeteko epean alokairu librerako zuzeneko laguntzen programa espezifikoa bat, COVID-19ak eragindako beharrian berriei erantzuteko, gainerako erkidegoek egin dutenaren ildotik.

Laguntza-programa horrek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Etxebizitzaren errentan hileko 650 euroko muga kentzea.
- 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatze beharra ezabatzea.
- Prestazioak 6 hilabeteko iraupena izanen du gutxienez.
- Nafarroa gure herrialdeko beste autonomia-erkidego batzuen inguruan kokatuko duen zenbateko ekonomikoa ezartzea.

36. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2020ko bigarren seihilekoan osa dezan AHTaren inguruko UPSaren birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuen onespina. Proiektu horrek 9.000 etxebizitza baino gehiago eraikitzea aurreikusten du, eta horietatik gutxienez 7.000 etxebizitza babestuak dira.

49. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektuak eta obren exeku-

zioa bizkortzeko, Espainiako Gobernuak hitzartutako diru-kopuru bat emanez, UPNk PPrekin 2018ko Aurrekontu Orokorretan sinatu zuen akordioaren ondorioz. Zenbateko hori honako hau da:

2020rako: 268M€; 2021: 645M€; 2022: 820M€, 2023: 540M € eta 52M € 2024ko likidazioetarako, eta horrela 2023an amaituta geratzeko Zaragoza-Iruñea-Euskal Abiadura Handiko Linea, eta denboran luzatzen ari den proiektu estrategiko eta oso eskatua gauzatu uzteko.

50. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Herri-lanetako inbertsio-plan berria garatzea, 75 milioi euroko inbertsioarekin azpiegitura berrietan eta garraio- eta errepide-azpiegitura berrien garapenean.

64. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzartu dezan 0/3 Zikloaren doakotasuna, bi ekintza-ildotan jardunez:

1. Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko du udalen edo gobernuaren beraren mendeko ikastetxe publikoetan eskolatzen diren HHko lehen zikloko haurren eskolatzearen kostu osoa.

2. Zikloa ematen duten zentro pribatuekin itunak ezarriko ditu, eskaintza publikoa behar diren plaza guztiekin osatzeko, eskaintza publikoa gizarte-eskariaren arabera uztartzen saiatuz.

Hori guztia EBren hezkuntza-helburuekin bat etorri, kalitatezko hezkuntza oinarrizko eskubideztat hartzeko berdintasuna bultzatzen baitute, eta kontuan hartuta Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa familientzat borondatezkoa dela eta familiek beren seme-alabei arreta emateko beste modu batzuk nahiago dituztela, garapen pertsonal egokia eta familia bateragarri egiteko gaitasun eraginkorra izan dezaten.

82. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du handitu dezan inbertsio sanitarioetarako aurrekontua, eta egin ditzan, ahalik eta lasterren, pediatriako zainketa intentsiboetako unitate berri bat eraberritzeko eta eraikitze lanak, Nafarroako Ospitaleko ama-haurren ospitalearen erreforma, hemodialisiko unitate berri bat eta Sofia Erregina Ospitaleko ebakuntza-gela berrien ekipamendua, Tuterako osasun-zentroen eraberritzea eta Tuterako Ospitaleko Kanpoko Larrialdi Zerbitzuaren eta San Martín Doktorea zentroaren larrialdi zerbitzuen eraberritzea, Tuterako, Atarra-

biako edo Erripagañako osasun-zentro berriak, bai eta Nafarroako hiru ospitale publikoetan banakako gelak berri eta handitzearen aldeko apustu garbia egitea ere, beste autonomia-erkidego bazuetan eta Europako beste herrialdeetan egiten ari den bezala. Gainera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun-zentroetan egokitzapen-lanak egiten dira, COVID-19aren ondoriozko berragerpenak gerta daitezkeenez, zirkuitu berezietan osasun-arreta ahalbidetzeko, bai eta berrikuntza teknologikorako plan bat ere. Azpiegitura eta teknologia sanitario horiek bikaintasuneko osasun-arreta emanen dute Nafarroan, eta gure erkidegoan segurtasun eta kalitate handiagoko osasun-erantzuna ahalbidetuko dute.

85. proposamena

Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du foru lege bat onestearekin, arreta soziosanitario integraturako, zerbitzu eta prestazio soziosanitarioak eskubide gisa bermatzeko eta premien balioespenak eta pertsonentzako jarduketan plan soziosanitario individualizatu eta integratuak ahalbidetzeko.

98. proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2020ko abenduaren 31 baino lehen ekar dezan Parlamentu honetara Errenta Bermatuari buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat, lehen egunetik lotuko dituen hura jasotzea ibilbide sozialak egitearekin, enplegarritasuna hobetzearekin eta/edo enpleguarekin, eta ez lehen edo bigarren urtetik aurrera, eta, horretarako, argi eta garbi indartu dezan hartzailerei laguntza profesionala ematea.

2. Era berean, Nafarroako Gobernua premiatzen du berreskuratu ditzan 2020. urterako zuzeneko enplegu aktiboko laguntzak COVID-19aren krisiaren ondorioz errenta bermatua jasotzen dutenentzat eta langabetuentzat.

129. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du autonomoentzako, mikroETEentzako eta ETEentzako inbertsio-plan bat garatzeko, beren negozio-ereduak COVID-19aren errealitate berrira egokitzeko, 25 milioi euroko zenbatekoarekin. Planak bermatuko du laguntza ekonomiko nahikoa izanzen dela enpresa txiki eta ertainen buru diren autonomoek aurre egin ahal izan diezaieten merkataritza-harremanen agertoki berriak eta osasun publikoko eskakizunek beren instalazioetan eta negozio-eredu tradizioaletan egitera behartuko dituzten inbertsioei, behar bezala egokituta egon daitezten.

Inbertsio horien artean, honako hauek sartuko dira:

- Negozio-ereduak digitalizatzeko neurriak, bai eta hornidura teknologikoak ere.
- Lanpostu presentzialak telelanaren eredueta-
ra egokitzea.
- Orain arte presentzialak izan diren zerbitzu teknikoaren online kontrola.
- Lanpostuak eta lan-eremuak laneko osasun-
eta higie-neurri berrietara egokitzea.
- Negozioak bezeroekin harremanetan jartzeko behar berrietara egokitzea, segurtasunagatik eta prebentzioagatik.

143. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du ahalik eta lasterren egin dezan ubidearen bigarren fasea, Nafarroarako ezinbesteko azpiegitura baita; izan ere, ubidearen garapena eta biztanleriaren, nekazaritzako elikagaien industriaren eta lehen sektorearen hornikuntza bermatuko ditu.

Gardentasuna eta azkartasuna eskatzen dugu ubidea gauzatzean; izan ere, gaur egun, Gobernuak ez du proiekturik, eta ez da alternatiba eraikitzailearik aukeratu.

2. boto partikularra, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentariak eta Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztua.

17. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du honako hauek egin ditza:

- 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako partidak birbideratzea, presako eta beharrezko neurriak abian jartzeari lehentasuna emateko, "Nafarroa Susperu 2020-2023 Plana"ren barruan.
- Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen esparruan, defizita eta zorra handitzea ahalbidetzeko finantza-mugak adostea.
- Espainiako zein Europako administrazioek gaitzen dituzten funts, laguntza eta estaldura-tresna guztietarako sarbidea aztertzea.

- Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikoa koordinatzeko batzordearen esparruan adostea nola parte hartuko duen Nafarroak berreraikuntzako estatu-funtsean, bai eta Nafarroak Europako beste funts batzuetan izanen duen parte-hartzean ere.

- Autogobernatzeko gaitasunean eta autonomia fiskalean aurrera egitea, fiskalitate berdearen eta ekonomia digitalaren fiskalitatearen eremueta-
ra bideratutako zerga-neurriak bultzatuz.

3. boto partikularra, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztua.

6. proposamena

Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du erabaki dezan COVID-19rako ohiz kanpoko tasa ezartzeko foru lege proiektu bat Parlamentura igortzea, horren bidez Nafarroako erakundeek hurrengo hilabete eta urteetan ezinbestean izanen dituzten finantzaketa-beharrei aurre egiten lagundu ahal izateko. Guztiz pertinentea da zerga-neurri gehigarri eta salbuespenezkoak aplikatzea, uztarturik fiskalitate progresiboago eta ekitatezkoago bati buruz egin beharrekoa den eztabaidari, halatan bermatze aldera premiazkoak ditugun politika publikoak praktikan jartzeko behar beste baliabide edukitzea.

COVID-19 tasa deritzona ezartzeari buruzko foru lege proiektu horretan, ondoren aipatzen diren zuzeneko zergetan ahalmen ekonomiko handiena duten pertsonen eta enpresen zergatasak aldi baterako, zati batean baina modu aipagarri edo nabarmenean, igotzea ekarriko duen zerga ezartzea proposatzen da, errekaru gisa: Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga. Igoera lau urterako izanen da, eta honako ezaugarri hauek izanen ditu:

A.- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren errekarua

Proposatzen da zergaren likidazio-oinarri orokorraren gaineko errekaru bat ezartzea, zergatasak gehitzeko moduan, honako parametro hauen arabera:

Likidazio-oinarri orokorra	Zerga-tasaren igoera
46.919,99 euro bitarte	Errekargua aplikatuzetik salbuetsita
46.920 eurotik 61.199,99 eurora bitarte:	% 1
61.200 eurotik 81.599,99 eurora bitarte:	% 2
81.600 eurotik 127.499,99 eurora bitarte:	% 3
127.500 eurotik 178.499,99 eurora bitarte:	% 4
178.500 eurotik 305.999,99 eurora bitarte:	% 5
306.000 eurotik aurrera	% 6

Aurrezkiaren likidazio-oinarriaren gaineko zerga-tasa handitzeko errekarua, oinarri bakar baterantz aurrera egiteko, baldintza hauetan:

Aurrezkiaren likidazio-oinarria	Zerga-tasaren igoera
5.999 euro bitarte	Errekargua aplikatuzetik salbuetsita
6.000 eurotik 9.999,00 eurora bitarte:	% 2
10.000 eurotik 14.999,00 eurora bitarte:	% 4
15.000 eurotik aurrera:	% 6

B.- Errekargua sozietateen gaineko zergan

handientzako tasa nominala handitzeko errekarua gehigarria proposatzen da.

Aurreko ekitaldiarekiko % 10etik gorako kontabilitate-mozkinak izan dituzten enpresa ertain eta

Zerga-tasaren igoera horren aplikazioa honela egitea proposatzen da:

Aurreko ekitaldiko kontabilitate-mozkina	Zerga-tasaren igoera
% 10 baino gutxiagokoa	Errekargutik salbuetsita
% 10etik % 15era bitarte	% 1
% 16tik % 20ra bitarte	% 1,5
% 20 baino gehiagokoa	% 2

C.- Errekargua ondarearen gaineko zergan

Zerga-tasak igotzeko errekarua bat proposatzen da tarte guztietan, azken zerga-tasak (errekargua aplikatu ondoren) % 1 eta % 3 arteko gorabeherara irits daitezen, milioi bat euroko salbuespenetik aurrera. Gainera, honako aldaketa hauek eginen dira:

– Ezkutu fiskala desaktibatzea, zergaren benetako progresibitatea bermatzeko eta plangintza fiskala saihesteko.

– Familia-enpresen partaidetzak zergapetzea, ekitate horizontalaren printzipioaren arabera, % 75eko hobaria ezarriz.

D.- Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren errekarua

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenen testu bateginaren 34.1 artikuluan araututako zerga-tasaren gaineko errekarua proposatzen da (250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa). Honela ezarriko da, hain zuzen:

Atala	Zerga-tasaren igoera
a) Lehena	% 0,1
a) Bigarrena	% 0,1
a) Hirugarrena	Likidazio-oinarriaren tarte bakoitzean % 1.
a) Laugarrena	Likidazio-oinarriaren tarte bakoitzean % 0,5.
c),d),e),f) eta g)	Likidazio-oinarriaren tarte bakoitzean % 1.

7. proposamena

Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du urtea amaitu baino lehen bidal dezan Parlamentura 2021erako zerga- neurrien lege proiektu bat, zerga-sistema justu, aurrerakoi, ekitatibo eta solidario baten alde eginen duena, sektore publikoaren bideragarritasuna bermatzeko behar diren diru-sarrerak bermatzeko, benetako progresibotasunaren printzipioan eta iruzurraren aurkako borrokan benetako konpromisoan oinarrituta. Aberastasanaren birbanaketa ahalbidetuko duen sistema fiskala, elkartasun-printzipioa gauzatuko duena; pertsona fisikoen gaineko sistema fiskala, non errenten zerga-karga berdina izan den jatorriatik bereizkeriarik egin gabe; sozialki aurreratuen dauden Europako herrialdeetatik hurbil dagoen presio fiskala izan den duen sistema, honako neurri hauek barne hartuko dituena:

1.-Hitzartutako zerga-figuri buruz:

A).-Pertsona fisikoen errentaren gaineko azterlana:

- Ordaintzaile bakar baten lan-etekinetatik soilik datozen errentak lortzen dituzten zergadunen kasuan, 16.000 eurora arte luzatzea aitortpena egin beharrik ez izateko kasua.
- Dualtasuna ezabatzea laneko eta kapitaleko errenten tratamenduan.
- Zenbatespen objektiboko moduluen araubidea arian-arian kentzea.

B).-Sozietateen gaineko zerga:

- Sistemaren bilketa osoan zerga honen ekarpen orokor handiagoa ahalbidetuko duten neurriak hartzea; hala nola, karga-tasak berrikustea.
- Helburu horrekin, zerga-kenkari eta -pizgarri guztiak birdefinitu behar dira, Gobernuak 2020rako aurrekontuei buruzko akordioetan hitzeman bezala onetsi zirenezat ezarri ziren helburuak benetan betetzen dituzten aztertze.
- Likidazio-oinarri negatiboak konpentsatzeko epeak murriztea.
- Zoru fiskala modu egokiagoan arautzea, benetakoa izan dadin, haren salbuespenak soilik

mantenduz, zergaren bilketaren higadura argirik eragin gabe.

C).-Aberastasanaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga

Aberastasanaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga berri bat ezartzea, egungo ondarearen gaineko zerga ordeztuz, iruzurraren aurkako kontrola egiteko eta sistemaren progresibitatea hobetzeko.

Hartara, zerga berri honen bidez sustatuko da aberastasanaren erabilera produktiboa, eta bilatuko da ondasunen eta eduki ekonomikoko eskubideen erabileran efizientzia handiagoa lortzea, saihestuz halakoak alferrikakoak izan daitezela eta erabilera espekulatiboa izan dezatela, eta, aldi berean, tributu-sistema osoari gehikortasun handiagoa emanez.

Aberastasuna gaitasun ekonomikoaren adierazle bat da, ondasunen eta eduki ekonomikoko edukien titulartasunetik datorrena. Ildo horretan, zerga berriak aberastasanak haren titular diren pertsona fisikoei dakarkien ahalmen ekonomiko gehigarria zergapetuko du. Funtsean, hiru dira zerga berri horren helburuak:

1.- Alde batetik, aberastasanaren gaineko kargaren helburua da eduki ekonomikoa duten ondasun eta eskubideen erabileran eraginkortasuna hobetzea, horien alferrikako erabilera edo erabilera espekulatiboa saihestuz. Alde horretatik, karga horrek aberastasanaren erabilera produktiboa sustatzen du espekulaziozko beste erabilera batzuen aldean.

2.- Bigarrenik, Aberastasanaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren helburua da aberastasuna osatzen duten ondare-elementuetan gerta daitezkeen aldaketak kontrolatzea eta erroldatzea. Zerga horrekin ixten da zerga-sistema, eta zerga-bilketaren eraginkortasunetik harago doa haren garrantzia.

3.- Azkenik, zerga berri horrek izaera progresiboagoa ematen dio zerga-sistema osoari.

Aberastasanaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga zerga zuzena eta pertsonala da, eta pertsona fisikoen aberastasuna zergapetzen du.

Zerga honen ondorioetarako, pertsona fisikoaren aberastasuna izanen da bere titulartasuneko ondasun eta eskubide ekonomiko guztiak, haien balioa gutxitzen duten karga eta zamak kenduta, eta erantzun beharreko zor eta betebeharrak personalak kenduta.

2.- Fiskalitate berdea dela eta:

Ingurumen-zergak karga fiskala birbanatzean dautza, eta, horretarako, zuzenean zigortzen dituzte ingurune naturalarekiko jokabide eta jarduera kaltegarrienak, eta, zeharka, erraztasunak ematen dituzte garapen jasangarriko onuragarriak diren jardunbide eta formula berrietarantz aurrera egiteko. Hori dela eta, proposatzen da azter dadila mailakatzearen, gardentasunaren eta parte-hartzearen printzipioen arabera ingurumen-helburuak dituen zerga-figuraren bat ezartzea.

Helburua da sistema fiskala erabiltzea ingurumenaren ikuspegitik positibotzat jotzen diren jokabide-aldaketak sustatzeko. Aberastasunaren banaketan eta ingurumen-arazo nagusiekiko erantzukizunean gero eta desberdintasun handiagoa dagoen testuinguru batean, pizgarri ekonomiko horiek ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-politika zabalago baten parte izan behar dute, arrakala hori murrizteko, klase behartsuenei jarrera jasangarriak errazteko eta ingurumenean inpaktu handiena duten eragile ekonomikoak zerga berdeen diru-kutxaren zergadun nagusiak direla bermatzeko.

Beharrezkoa da, gaur egun eta etorkizun hurbilean, ingurumen-fiskalitate progresibo bat diseinatzea eta ezartzea, baliabide naturalen gehiegizko ustiapenari pizgarria kentzeko eta, aldi berean, klima-krisiari eta ekosistemen degradazioari aurre egiteko. Hori ere tresna estrategikoa izanen da trantsizio ekologikoa finantzatzeko, trantsizio horretan ezinbestekoa izanen baita zientzian eta teknologian inbertitzea.

Era berean, ezinbestekoa da zerga-politika horretatik lortutako diru-bilketa erabil dadila trantsizio ekologikoa errazteko eta planetaren mugen arabera eredu sozioekonomikoa lortzeko.

Horregatik, fiskalitate berdearen arloan, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azter dezan zerga-figura berde berriak ezartzeko aukera, zerga-arloan dituen eskumenak erabiliz. Honako hauen moduko figurak, hain zuzen:

- Lurzoruaren erabileren aldaketaren gaineko zerga: Zerga honen helburua da pizgarriak kentzea lurzoru urbanizazina urbanizagarri bihurtzeko. Horrela, lurzoru bezain baliabide natural baliotsua eta gero eta urriagoa erabiltzea babes-

ten da, landa-lurzorua urbanizatzeraz igarotzeko urbanizazio berriko jarduketak zergapetuz.

- Abeltzaintza intentsiboaren ingurumen-inpaktuaren gaineko zerga: Zerga bat sortzea proposatzen dugu, minden sorrerak eta abeltzaintzako instalazio intentsiboetan sortutako metano-isuri lausoen ingurumenean duten eragina zergapetzeko. Ziurtagiri ekologikoa duten baserriak zergaren zati batetik kanpo uztea proposatzen da. Era berean, erabilera estentsiboko ustiategiak zergatik kanpo geratuko lirakeke, nekazaritzan sortzen dituzten ingurumen- eta gizarte-onurak direla eta.

- Ontzi ez-erabilgarrien gaineko zerga: Zerga honen helburua ontzi berrerabilgarri eta iraunkorren erabilera sustatzea da; beraz, erabilera bakarreko ontzien gaineko zerga sortzea proposatzen du. Zerga hori pizgarria izanen litzateke ekonomia zirkularrerako, egunero kontsumitzen diren erabilera bakarreko ontzien kantitate handia murriztuko luke, eta sustatuko luke ontziratzaileek beren ontziratzea formatu berrerabilgarrietara bideratzea.

- Meatzaritzako Erauzketa Jardueren gaineko Zerga: erauzketa-jarduerak ingurumen-kalte handiak eragiten dituzte berriztagarriak ez diren baliabide naturalen agortzeari dagokionez. Aire zabaleko ustiategi kasuan, gainera, paisaia aldarazten dute. Ustiategi horietan da justifikatuena zerga ekologikoa bat ezartzea.

- Gaur igarotzearen gaineko zerga: Zerga honen helburua izanen litzateke jarduera eta establezimendu turistikoek ingurumenean duten eragina zergapetzea. Bestalde, turismoak kalitatezko ingurumenaren onura jasotzen du, eta bidezkoa da arlo horretako politikak finantzatzen laguntzea.

Gainera, ebaluatu behar da hondakinen instalazio pribatu edo publikoetan egiten den isurketa eta errausketaren gaineko zergaren ezarpena, zeina Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko 14/2018 Foru Legean jaso baitzen, hargatik eragotzi gabe foru lege honen balizko erreforma, haren banaketak zerga horren oinarri den filosofia-errekiko errespetua bermatzen duela ziurtatzeko.

3.-"Tobin tasa" eta "Google tasa" deiturikoak ezartzea.

Estatuarekin negoziatu behar da, Nafarroan finantza-transakzioen gaineko zerga ("Tobin tasa") eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga ("Google tasa") harmonizatzeke, horien kudeaketa eta ordainarazpena Nafarroako Ogasunak egin ditzan.

Laburbilduz, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Zerga Neurriari buruzko Lege Proiektu horrekin zerga-politika jakin bat bultzatzea, lortu nahi diren emaitza zehatzak lortzeko. Baliabideak bil-

tzeko moduak eta horiek gastatzeko moduak aberastasanaren birbanaketa baldintzatzen dute: gehien duenak ekarpen handiagoa egiten du eta itzulkin txikiagoa jasotzen du. Gutxi duenak, alderantziz Horrela, zerga-politika eta gastu-politika tresna garrantzitsuak dira gizarte-desberdintasunak murrizteko. Horregatik, zerga-sistemaren beharrezko erreformek izaera progresiboa izan beharko dute, gizarte-orekara bideratuz eta baliabide publikoen nahikotasuna eta gehikuntza bermatuz.

9. proposamena

Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du Nafarroako Banku Publikoa sor dezan, ezaugarri hauek izanen dituena:

1.- Zerbitzu publikoa eta irabazi-asmorik gabekoa izatea.

2.- Kontu korrante baterako eta ordainbide baterako sarbidea bermatzea hala eskatzen duten Nafarroako herritar guztiei.

3.- Aurreztaileen eta inbertitzaileen gordailuei kaudimen-berme handiagoa ematea, banku-sektore pribatuak azken urteetan eskainitakoa baino.

4.- Sozietate aurreratu batean eguneroko bizi-tzarako funtsezkoak diren eragiketarako sarbidea bermatzea, hala nola helbideratzeak, zordun-keta-txartela eta kutxazainen zerbitzuetarako sarbidea, prezio erabat eskuragarrietan edo doa-koetan.

5.- Nafarroako sektore publikoko erakunde guztien jarduna kudeatzeko erreferentziazko finantza-erakundea izatea (diru-bilketa, zerbitzari publikoei soldatak ordaintzea, sektore publikoko gordailuak, sektore publikoaren finantzaketa, etab.).

6.- Gida moduan izatea kudeaketa demokratiko, garden eta etikoaren arauak.

7.- Balizko onurak gizarte-ekintzetan edo horien kapitalizazioan eta kaudimena segurtatzean berrinbertitzea.

8.- Bere jardueren gizarte-errentagarritasuna balizko errentagarritasun ekonomikoaren ginetik jartzea; horrek ez du esan nahi banku publiko honek nahitaez bere gain hartu behar duenik banku pribatuak baztertzen dituen proiektuen finantzaketa, edo galerak aurreikusten diren finantzaketa-proiektuak onartu behar dituenik.

9.- Administrazio publikoen finantzaketa erraztea, sektore pribatuak akziodunentzako errentagarritasuna bilatzeko eskaintzen dituenak baino baldintza hobetan.

10.- Bere langileen duintasuna bermatzen duten ordainsariak ezartzen dituen soldata-politika bat ezartzen badu, bai eskala txikiagoagatik, bai maila altuagoagatik, eta, bereziki, bien arteko ratioagatik.

11.- Administrazio-kontseilu bat eratzea, Nafarroako Gobernuak izendatutako bederatzi kidez osatua, Foru Parlamentuak proposatuta, finantzen arloan ospe eta/edo esperientzia profesional aitortua duten pertsonen artean. Administrazio Kontseilu horretan esanbidez aitortuko da eskubide osoko partaidetza sozial eta sindikala.

12.- Gaitasun-, merezimendu- eta berdintasun-printzipioetan oinarritutako kontratazio-politika ezartzea, ordainsari-maila duin, lehiakor baina mugatuekin.

13.- Lankidetzeta-hitzarmenak lortzea beste banku publiko batzuekin, bezeroei zerbitzuak beste erkidego eta herrialde batzuetan eman ahal izateko, bai eta tamainari lotutako sinergiak optimizatzeko ere, hala nola bulego-sarea, sistema informatikoak, etab.

14.- Banka elektronikoaren ahalmen guztiak, bai eta banku pribatu konbentzionalaren antolaketak, egitura- eta eraikin-egitura astunei eustera behartuta ez egotearen abantaila ere, kostuak optimizatzeko baliatzea.

15.- Nafarroako ekoizpen-sarea, gure ekonomiarako inbertsio estrategikoak eta Nafarroako enpresa txiki eta ertainen finantzaketa sustatzea.

21. proposamena

Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du honako hauek egin ditzan:

a).- Bermatzea gardentasun-bideak, jarduera publikoari buruzko informazioa emateko bideak, bereziki Nafarroako Gobernuak COVID-19aren krisirako duena, eskuragarriak, egiazkoak, homologagarriak eta konstanteak izan daitezela, Nafarroa suspertzeko era guztietako neurriak diseinatzeke (sanitarioak, ekonomikoak, asistentzialak) ezinbestekoa baita gertatutakoaren benetako argazkia izatea.

b).- Nafarroan estrategia eta plan propioak diseinatzea eta ezartzea, gure erkidegoko sektore sozial, ekonomiko eta politikoen benetako parte-hartze eraginkorretik abiatuta, emaitza ahalik eta partekatuen eta kolektiboena izan dadin.

c).- LORAFNari buruzko hausnarketa- eta eztabaida-prozesu bati ekitea, Nafarroaren estatus politikoa buruz, egungo behar eta errealitate-etara egokitzeko, Estatuarekin benetako alde-bikotasuna ezartzea helburu hartuta.

54. proposamena

Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du Nafarroa Susperitu planean neurri gisa sardezan Nafarroako Toki Administrazioa Erreformatzeko 4/2019 Foru Legearen lege- eta erregelamendu-garapena, honako lau gai hauetan:

a).- Finantzaketa-proposamen bat egitea, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan dauden egungo dirulaguntza finalistak arian-arian ordeztzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikularen 2. zenbakiko a) letran aurreikusitako finantzaketa-moduluekin. Proposamen horretan toki entitateek ematen dituzten zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak ere sartuko dira, haien legeria sektorialarekin bat, eta zehazki 5/2019 Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean aipatutako dirulaguntzak.

b).- Behin betiko ezartzea Nafarroako udalerrri, kontzeju eta eskualdeek Nafarroako Ogasun Publikoaren zerga-sarrera guztietan parte hartzeko urteko portzentaje finkoa.

c).- 4/2019 Foru Legean aurreikusita dagoen eskualdeak eratzeko prozesua garatzea eta ezartzea.

d).- Hondakinen arloan Plangintza Orokorreko Mankomunitatea eratzeko eta abian jartzeko prozesua garatzea.

55. proposamena

Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du Nafarroa Susperitu suspertzeko Planean honako gai eta hausnarketa hauek sar ditzan:

a).- Inbertsioak finantzatzeko eta errepidesarea mantentzeko sistema zehaztea, mugikortasun jasangarriko programa orokor baten barruan.

b).- Egungo krisi ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, Estatu Administrazioari jakinaraztea AHTko obrak berehala geldiarazi behar direla eta proiektu berriak ezetsi behar direla. Nafarroan, gaur egun, egungo trazadurak hobetu eta mantentzearen alde egin beharra dago, herri, hiri eta industrialdeak lotuko dituen tren bat izatea lor dezagun; pertsonak eta salgaiak garraiatuko dituen, lurraldea egituratuz, oso isolatuak dauden eremuak alde batera utzi gabe, eta edonorentzat ekonomikoki eskuragarria izan dena. Horregatik, aldiriko tren garraioari buruzko azterketa bizkortu behar da.

Ondorioz, hori planteatu duten gizarte-kolektiboekin bat gatz AHTaren inbertsio ekonomiko guztia urgentziazko eta lehentasunezko gaietara bideratu dadin: osasun-sistema publiko bat, behar adina langile eta baliabideekin; adinekoen, men-

dekoen eta haiek zaintzen dituztenen kalitatea zaintzea; pentsio bidezkoak; pertsona guztientzako oinarrizko diru-sarrerak; kalitatezko hezkuntza publikoa; euskararen sustapena; elikadura-burujabetzaren aldeko apustua; kalitatezko gizarte-zerbitzuak; zainketen balorizazioa; COVID-19aren krisiak larriki kaltetutako sektoreetako pertsonen emandako babesa, hala nola saltoki txikiak, kulturaren mundua, etab. Azken finean, krisi ekologikoa (klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera, kutsadura ekonomikoa) eta soziala aitortzen dituzten eredu ekonomiko berriak behar ditugu.

c).- Nafarroako Ubidearen bigarren faseari dagokionez, gogoeta egitea proiektuak eragindako inbertsioek Nafarroako Ogasunaren epe labur eta ertaineko finantza-agertokian izan den eragin ekonomikoari buruz, kontuan hartuta zehaztu gabe dauden eta gastu desberdinak eraginen litzuketen elementu garrantzitsu batzuk daudela; izan ere, horrek guztiak determinatuko du hurrengo urteetan proiektua gauzatzeko premia dagoen ala ez. Arrazoi ekonomiko berberengatik, aztertu eta analizatu behar da ez ote den beharrezkoa azaroaren 26ko 35/2013 Foru Legea aldatzea — zeinak ezartzen baitu zein urtaldiri egotziko zaien Nafarroako Gobernuak “Canal de Navarra, S.A.” sozietateari “Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerak” kontzepturako ematea hitzartua duen diru-aurreakinaren finantza-gastua (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Nafarroako Ubidea eraikitze lankidetzaren hitzarmenaren gaurkotze-agiriaren bosgarren klausularen araberrako diru-aurreakina)—, hura deuseztatu edo eteteko.

70. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du egin dezan, Nafarroako hezkuntza-komunitatearen eta talde parlamentarioen parte-hartzearekin, unibertsitatez kanpoko hezkuntzari buruzko foru lege proiektu bat, azken urteotan identifikatu diren beharrezkoak eta erronkei erantzunen diena; izan ere, beharrezkoak eta erronka horiek garrantzi handiagoa hartu dute gure hezkuntza-sistemaren egiturazko arazoak eta inor atzean utziko ez duen kalitatezko hezkuntzarako eta paradigma berri baterako erantzunak emateko beharra agerian geratu diren egoera honetan. Foru legeak honako alderdi hauek jasoko ditu, besteak beste:

– XXI. mendeko hezkuntza-erronketarako finantzaketa publiko nahikoa blindatzea, egoera ekonomikoen mende egon ezin dena.

- Ratioak murriztea eta irakaskuntza-baliabideak handitzea.

- Irakasleak egonkortzearen eta bitartekotasuna murriztearen aldeko apustua.

- Sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeekiko hezkuntza-itunak ez berritzea.

- Digitalizazioa.

- Curriculum propioaren gaineko eragina.

- Berrikuntza pedagogikoa eta metodologikoa, gaitasunen bidezko ikaskuntza sustatzea, lan kooperatiboa eta hezkuntza-ebaluazioko sistema.

- 0-3 zikloa Haur Hezkuntzako etapa integral baten barruan sartzea.

78. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du neurri eraginkorrek har ditzan pandemia-egoerak urratu dituen edo murriztu ditzakeen hizkuntza eskubideak bermatzeko. Horretarako, Nafarroako Gobernuak honako ekintza hauek eramanen ditu aurrera:

- Alarma-egoeran gertatu diren hizkuntza-eskubideen urraketak berehala konpontzea eta administrazioaren baliabideak behar bezala antolatzea, edo baliabide gehiago ematea, helburu hauek lortzeko:

- Hezkuntza Departamentuak helarazitako informazioa euskaraz iristea gutxienez D ereduko ikastetxetara eta ikastoletara.

- Web atarian eta sare sozialetan Nafarroako Gobernuaren informazio digitalak euskaraz izatea, erdarazkoen baldintza berdinetan.

- Euskararen presentzia bermatzea Nafarroako Gobernuaren zentroetan COVID-19a dela-eta sortzen ari den hizkuntza-paisaia berrian.

- Herritarrek departamentu eta zerbitzuetan egin beharreko izapide administratibo presentzialak, informatikoak eta telefonikoak euskaraz egin ahal izan daitezen bermatzea.

- Azterketa edo inkesta bat egitea hilabeteko epean, pandemiaren ondorioei buruz eta euskara sustatzen eta normalizatzen aktiboki lan egiten duten eragileengan sortutako egoera sozioekonomikoari buruz, hainbat arlotan, hala nola kulturaren, sozioekonomian, gizarte-erakundeetan, komunikatibitatean eta helduen alfabetatze eta euskalduntzean. Ateratako ondorioekin Euskarabideak sektore horiei laguntzeko eta haiek bizkortzeko plan bat eginen du, horiek suspertzeari eta berreskuratzeari begira izanen dituzten zailtasun handiagoak eta herritarren hizkuntza eskubideak eta euskara

sustatzeko politika aktiboak bermatzeko beharra ikusita. Neurri horien artean, egoera ekonomikoaren menpe ez dagoen finantzaketa egonkorra bermatzeko bideak jasoko dira.

- Egoera epidemiologikoak aukera ematen duen heinean eta osasun-segurtasuneko berme guztiekin, Euskarabidearen bidez eta A ereduko eta D ereduko ikastetxeekin eta ikastolekin batera, uda honetarako euskarazko jolas- eta aisialdi-eskaintza antolatzea, bereziki familietan eta ingurune hurbilenean testuinguru euskaldunik ez duten ikasleei zuzendua, saiheste aldera sei hilabetez euskararekiko ahozko harremanik apenas ez izatea. Euskararekin berriz harremanetan jartzea eta euskara erabiltzeko aukera izatea ere funtsezkoa izanen da ikasgeletara itzultzeari aurre egiteko eta hizkuntza-gaitasuna eskuratzean atzera ez egiteko.

- Euskarabideak lehendik dauden programak indartzea, euskarazko hizkuntza-gaitasuna lantzea helburu dutenak, batez ere ahozkoa, eta datorren ikasturtearen hasierarako berriak ezartzea, eskola-orduetan eta eskolaz kanpoko jardueretan.

105. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du urgentziaz egin eta abian jar dezan pertsona ahulenak erreskatatzeko gizarte-zerbitzuak indartzeko plan bat. Plan hori egiten eta garatzen, Nafarroako Gobernuaz gain, honako hauek parte hartu beharko dute: Parlamentuko ordezkari politiko bat, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko ordezkari bat, sektore ahulenean lan egiten duten kolektiboen ordezkari bat, eremu soziokomunitarioko ordezkari sindikal bat eta herritarren sareak.

Nafarroako Gobernu premiatzen da plan horretan honako neurri hauek jaso ditzan:

a).- Krisiaren ondorioz sortu diren premia larrienei erantzuteko langile gehiago jartzea; esate baterako, errenta bermatuaren eskaerak azkarago izapidetzeko, zerbitzu psikologikoak emateko, koordinazioa hobetzeko, larrialdietarako laguntzetarako eta premia horiek identifikatzeko.

b).- Pertsonak dituzten laguntza-eskubideei buruzko ahalik eta informazio zabalena ematea, eskubide horiek ez ezagutzeak inori kalterik eragin ez diezaion. Eten digitala ezabatu behar da informazioa pertsona guztiengana iristen dela bermatzeko.

c).- Errenta bermatua eskuratu ahal izateko baldintzak malgutzea.

d).- Pertsona guztien eskubideak bermatzeko neurriak, batez ere gure erkidegoan bizi diren pertsonen enplegua eta etxebizitza segurtatzera bideratuak.

135. proposamena

Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Nafarroa Suspertu Planean honako gai hauek sar ditzan:

a).- Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak: aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetara jo behar bada eta etorkizunean koiuntura-krisien aurrean tresna gisa aplikatu behar badira, horretarako arrazoi justifikatuak daudenean baino ez dira baimenduko. Haien onarpena baldintzatzea honako hauen arabera: krisiaren aurreko ekitaldian izandako enpresa-onuraren hazkundearen ehunekoak, eta enpresa eskatzaileek ABEEE batera jo aurretik aplikatzeko modukoak diren malgutasun-neurriak ez izatea. Horrela, ez da onartuko enpresa batzuek krisi koiunturalak erabiltzea beren plantillen lan-eskubideei kalte egiteko.

b).- ABEEEak aplikatu ondoren, enplegua babesteko plan bat diseinatzea.

- 2008ko krisiaren ondoriozko lan-baldintzen okertzea leheneratuko dira.

- Ekonomia eta Gizarte Kontseilua izanen da gizarte-eragileek plan horri buruzko erabakiak hartzeko orduan parte hartzeko foroak.

c).- Autonomoak: Hobariak eta murrizketak (tarifa laua), gaur egun, aurreko 2 urteetan edo 3 urteetan altan egon ez izanaren baldintzapean daude, jada laguntzaren onuradun izan den kasuetan. Bi kasuetan, administrazio eskudunarekin negoziatuko da urtebetera murriztea.

d).- Gizarte-ekonomia: Ekonomia suspertzeko sektore-planetan gizarte-ekonomiako enpresentzako lehentasunak eta neurriak txertatzea.

e).- Ekintzailatza kooperatiboa: laguntza- eta pizgarri-neurriak hartzea lan elkartuko kooperatiba berriak eta lan-sozietateak sortzeko, langileak enpresako bazkide gisa sartuz.

f).- I+G+B inbertsioaren helburua BPGaren % 3an finkatzea. Ezinbestekoa da tokiko produktuen industria-ehuna sendotzeko. Horretarako, helburu hori lortzeko epea legegintzaldi honetakoa izanen da, eta urte bakoitzari dagokion igoera zehaztu beharko da.

g).- Digitalizazioa eta 4.0 industria barne hartzen dituen eraldaketa teknologikoko plan zehatza diseinatzea, adimen artifizialari funtsezko zeregina

emanez, gauzen Interneta deitutakoa, helburu horiek enpleguari eusteko politikekin uztartuz.

165. proposamena

Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du, migrazio-politikei eta justiziaren eremuari dagokienez, Nafarroa Suspertu suspertzeko planean honako neurri hauek sar daitezten:

a).- Osasun-krisia dela-eta bultzatutako gizar-te-babeseko neurri guztiek, baita krisi horren ondoren ere, pertsona guztien beharrak asetzen dituztela bermatzea, haien jatorri kulturala edo administrazio-egoera edozein dela ere. Horretarako, beharrezkoa da udalerriei baliabideak ematea, aurkezten diren beharrezanetan oinarrituta, migratzaileei harrera egiteko, pertsona guztien gizarteratzea errazteko eta kulturen arteko bizikidetzatza bultzatzeko.

b).-Pertsona oro herritar gisa aitortzea, Nafarroako edozein udalerritan erroldatuz aitortutako benetako bizilekuaren bidez; horrek, izan ere, herritar guztiei eskubideak eta betebeharrak aitortzea dakar. Horretarako, neurriak ezarriko dira udalerriek erroldak egin ditzaten, pertsona guztiei erabateko herritartasuna bermatzeko.

c).-Migratzaileen administrazio-erregularizazioaren aldeko jarduketak, hala nola:

- Jarduera-plan integrala, eragindako pertsonen eskubide- eta betebeharrak berdintasuna eta lan- eta egoitza-egonkortasuna bermatzeko neurriekin.

- Migrazio- eta atzerriartasun-politiken arloko eskumena erreklamatzeko, pertsona guztiei eskubide eta betebeharrak guztiak bermatu ahal izateko.

d).-Preso nafarren eskubide guztiak bermatzea; horretarako, beharrezkoa diren kudeaketak egiten dira Nafarroatik kanpo daudenak Iruñeko espetxera eramateko, gizartean eta familian errotuta daudela bermatze aldera. Halaber, espetxe-osasunaren arloko eskumena premiaz eskualdatzeko negoziazioak azkartuko dira, eta espetxe-eskumenaren kudeaketa eskualdatzeko oinarriak ezarriko dira.

4. boto partikularra, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztua.

108. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

- Eskubide Sozialetako Departamentuaren gastu-muga handitzen jarraitzea legegintzaldian zehar, eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara jasotzearen ondorioz izan daitekeen "gastu-beherape-

nak” ez ekartzea haren gaineko beheranzko eragina.

- Gure gutxieneko diru-sarreraren sistemaren edo errenta bermatuaren babes-gaitasuna hobetzeari lehentasuna ematea; horretarako, kontuan hartuko dira sistematik kanpo egon ohi diren kolektiboak eta pertsonak, baldintzak malgutzearen eta errenta bermatuaren hirugarren fasea edo enplegu prekarioaren osagarriak zabalitzearen bidez, lan-merkatuko sektore bakoitzaren ezaugarriak baloratuta.

- Esku-hartze Sozialerako Nafarroako lehen hiztarmena lehenbailehen burutzeari lehentasuna ematea, hirugarren sektorean lan egiten duten gizarteratze-arloko profesional guztien lan-baldintzak hobetzeko.

- Genero-ikuspegia, desgaitasuna eta DOS-Agenda 2030ekiko konpromisoak sartzeta.

5. boto partikularra, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztua.

13. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurkez dezan 2020an erreforma fiskal berri bat Nafarroako Parlamentuan, eduki honekin:

1. Sozietateen gaineko zerga.

- Sozietateen gaineko Zergaren zerga-tasa orokorra % 28tik % 35era igotzea, eta gutxieneko tasa efektiboa % 18tik % 25era enpresa handientzat.

- Sozietateen gaineko Zergan Espainian indarrean dagoen araudian ez dauden onurak eta kenkari fiskalak ezabatzea: inbertsioengatiko erreserba berezia, inbertsioengatiko kenkariak eta enplegua sortzea, besteak beste.

- Enpresa handiei nabarmen mugatzea mozkinen zerga-ordainketa murrizteko aukera, aurreko urteetako emaitza negatiboak konpentsatuz. Konpentsatzeko aukera 7 urtera murriztea; egun, ordea, 15 urtez konpentsatzeko aukera dago.

Legealdiaren amaieran Sozietateen gaineko Zergaren bilketa PFEZren bilketaren % 50 ingurukoa izatea da helburua, eta horrek sozietateen gaineko zergaren bilketa 300 milioi euro inguru handitzea ekarriko luke.

2. Fortuna handien gaineko zerga berria.

- Aberastasunaren gaineko zerga berria, fortuna handiak, milioi bat eurotik gorako ondare garbiak —ohiko etxebizitza alde batera utzita, gehie-

nez 300.000 euroraino— progresiboki zergapetzen dituen.

- Ondare garbiak eskala progresibo baten bidez zergapetuko dira: % 2, 1 milioi eurotik aurrera; % 2,5, 5 milioitik aurrera; % 3, 15 milioitik aurrera; % 4, 50 milioitik aurrera; eta % 5, 100 milioitik aurrera.

Zerga hori 6.000 zergadunen gainean ezar daiteke Nafarroan, eta urtean 200 milioi euro baino gehiago bildu.

3. Iruzurraren eta zerga-ihesaren aurkako borroka indartzea.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak ikuskari eta kudeatzaile fiskalen LEP bat onestea proposatzen da, foru ogasunak xede horretarako duen egungo plantilla bikoiztuko duena.

28. proposamena

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerbitzu publikoak hobetu eta indartu ditzan, plantillen handitze eta egonkortasunaren bidez, enplegu publikoaren lan-baldintzak hobetuz, azpiegiturak hobetuz eta pribatizatutako zerbitzu publikoen kudeaketa publikorako itzulketa aurreratuz.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indartu dezan Eskubide Sozialerako Departamentuaren, Osasun Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua, eta inolaz ere ez dadin inolako murrizketarik aplikatu arlo sozialean.

56. proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indartu dezan bidaiarien eta salgaien tren bidezko garraioa, Nafarroako herrien arteko bidaiarien garraioaren ibilbidea eta maiztasunak indartuz, bereziki Iruñearekiko loturak, bai eta salgaien garraioa zabalduz ere, egungo bide-sarea erabiliz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egungo trenbide-sarea modernizatzearen alde egin dezan (nazioarteko zabalera egokitzea, konpontzea, beharrezkoa denean trazadura aldatzea eta abiadura handitzea), bai eta AHTaren Nafarroako obrak geldiaraztearen alde ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eztabaida zabal eta sakon bat antola dezan AHTaren proposamen alternatiboari buruz, zeina egungo tren konbentzionalaren plataformaren egokitzapenean oinarritzen baita, beharrezkotzat jotzen diren hobekun-

tzak txertatuz. Proposamen hori sakon ezagutu eta eztabaidatu behar du Nafarroako gizarte osoak.

58. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gara dezan Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea, bereziki udal zerbitzu publikoen zonakatzeari eta toki entitateen finantzaketari dagokienez.

71. proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean diseina dezan Nafarroan irakaskuntza publikoaren antolaketa eta garapena hobetzeko plan bat, honako hauek jasoko dituen:

– Hezkuntza-eskaintza publikoa zabaltzeko plana, eskolatzeko-eraketa guztiei eta prestakuntza- eta titulazio-premia berriei erantzuteko.

– Eskolako azpiegiturak eraikitze eta hobetzeko plana.

– Giza baliabideen hornidura handitzeko eta aniztasunari arreta emateko plana garatzeko plana, bereziki ikastetxe bakoitzaren IHPa eta urteko programazio orokorra COVID-19ak eragindako egoera espezifikoetara egokitzeko.

– Eremu bakoitzeko ikastetxe publikoetako ikasleen bizikidetzarako hezkuntza-testuinguruak sustatzeko eta ezartzeko plana.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako hezkuntza-eskaintza egituratuko duen Irakaskuntza Sistema Publikoa indartu dezan, baliabide politiko eta ekonomiko nahikoekin, guztion eskola-arrakastarako kalitatezko hezkuntzaren bermatzaile izanen diren ikastetxeak sustatuz, hezkuntza-testuinguru demokratiko eta parte-hartzaileen bidez, sozializazioaren bidez, gizarteratzearen bidez, bizikidetzaren bidez zein bizikidetzaren baitan, inklusioaren bidez, hezkidetzaren bidez eta laikotasunaren bidez. Horretarako, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du honako hauek egin ditzan:

– Eskolatzeari buruzko araudia aldatzea, ikasleen banaketa orekatua izan dadin, eskola plurala eta inklusiboagoa sustatzeko; eta, beraz, ikastetxe bakoitza kokatuta dagoen ingurune fisikoko ikasleak eskolatzeko familiek aukeraturako hizkuntza-ereduan (gaztelania/euskara).

– Ohiz kanpoko laguntzarik ez ematea sexuaren arabera bereizten diren ikastetxeei.

– Berehala kentzea itunpeko ikastetxe pribatuak egindako itunak, baldin eta ikasleak sexuen arabera bereizketaren ondorioz bereizten badituzte, edo kuota ekonomikoak ezartzen badituzte.

– Curriculum-espazioa eta, beraz, eskualdeko irakaskuntzen eta horien aukeren ordu-karga legezko gehieneko kopurura murriztea.

72. proposamena

Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du hezkuntzari buruzko lege organiko berri bat, guztion eskola-arrakastarako kalitatezko hezkuntza bermatuko duena, hezkuntza-testuinguru demokratiko eta parte-hartzaileen bidez, sozializazioaren bidez, gizarteratzearen bidez, bizikidetzaren bidez eta bizikidetzaren baitan, inklusioaren bidez, hezkidetzaren bidez eta laikotasunaren bidez. Ildo horretan, Nafarroako Gobernua premiatzen du esku har dezan bere baliabide guztiekin honako hauetarako:

– Derrigorrezko hezkuntzaren izaera barne-hartzailea handitzea.

– Curriculumak murriztea, aukerakotasun- eta hautazkototasun-maila handitzea.

– Erlijioaren irakaskuntzaren eskola-curriculumak kanpo uztea.

– Hezkuntza zibikoa, afektibo-sexuala, berdintasunerako hezkuntza eta bizikidetzarako hezkuntza eskola-curriculumean sartzea.

– Arte- eta musika-hezkuntzarekin lotutako irakasgaien pisu espezifikoak handitzea.

– Hezkuntza-itunak pixkanaka murriztea eta ikastetxe pribatuak errepublika publikora itzultzea.

– Ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten itunak berariaz debekatzeko.

123. proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu ditzaten, 2020-2021 ikasturterako, gradu-ikasketetako irakasgaien matrikulak, 1. matrikularen kostua gainditzen ez duen tasa bateratu bakar batean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bidez unibertsitateko masterren kostua murriztu dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezar ditzan aparteko beka- eta laguntza-sistemak COVID-19aren eragi-

nen ondorioz zailtasun ekonomikoak dituzten unibertsitateko ikasleentzat.

136. proposamena

Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Espainiako Gobernuak eta Gorte Nagusiek Lan-merkatua Erreformatzeko Premiazko Neurriei buruzko 3/2012 Legea indargabetzea, eta Nafarroako Gobernua premia-tzen du esku har dezan hori lortzeko ahal dituen bitarteko guztiekin.

138. proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Enplegua Eskuratzeko Eskubidea bultzatu eta babes dezan diskriminazio-rik gabe, Nafarroako Zerbitzuari beharrezkoak diren baliabideak emanez lan-merkatuko bitartekaritza areagotzeko:

– Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez kontratatzen dituzten enpresei zerga-laguntzak eta -onurak baldintzatzea. Hau da, politika publikoak onetsi nahi ditugu, enplegua lortzeko baldintzak askoz ere berdina goak izan daitezen.

– Behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak ematea Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, enpresei lan-bitartekaritzako zerbitzu on eta eraginkorra eskaini ahal izateko.

– Enpresen zerga-laguntzak eta -onurak baldintzatu-ko dituen foru lege bat onestea, gu-

txienez lan-kontratuen % 50 Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez egin ditzaten.

139. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du banku publiko bat sor dezan, gure erkidegoaren garapen ekonomikoan zuzenean esku hartuko duena, gordailuak bereganatuko dituena, langileen familiei finantza-zerbitzuetarako sarbidea demokratizatuko diena (etxebizitza eskuratzeko), eta Nafarroako enpresa-sarea osatzen duten enpresa txiki eta ertainei finantzaketa emanen diena.

Nafarroako Kutxa Fundazioaren baliabideekin kapitalizatzea proposatzen dugu (Caixa Banken akzioak).

140. proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du industria-politika berri bat diseinatu eta gara dezan, partaidetza eta lidergo publikoekin, honako printzipio hauetan oinarrituta:

– Enpresen partaidetza publikoa, egonkorra eta iraunkorra, eskualde-garapenerako estrategikotzat jotzen diren proiektu eta sektoreetan (S3), eta lidergo publikoa I+G+b arloan.

– Sodena enpresa publikoaren eta hura arautzen duen foru legearen egiturazko erreforma, orientazio berria garatu ahal izateko.

